



# IHITZA


Bigarren sasoia • Segunda época

PRIMAVERA • 2005 • UDABERRIA

16

1,80

**ESKOLA EKOLOGIKOA ERAIKITZEN ♦ POR UNA ESCUELA ECOLÓGICA**



**ONDAREA:**  
nortasuna eta etorkizuna





Bigarren sasoia. 16. ZENBAKIA  
2005ko UDABERRIA

## ONDAREA: NORTASUNA ETA ETORKIZUNA

**El patrimonio: identidad  
y futuro**

Segunda época. NÚMERO 16  
PRIMAVERA de 2005

4015 Posta-kutxatila  
48080 Bilbao  
www.euskadi.net/ihitza  
posta-e: ihitza@ej-gv.es

### Zuzendaria // Director

Josu Erkiaga Laka

### Argitalpen-kontseilua //

#### Consejo editorial

CEIDA

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen

Hezkuntzako Zerbitzua //

Servicio de Educación Ambiental

del Gobierno Vasco

### Erredakzio-taldea // Redacción

Isabel Prieto de Blas

Txema G. Crespo

César Ortuzar Ealo

### Kolaborazioak // Colaboraciones

Joaquín Cárcamo

Giovanni Netto

### Argitalpena // Edición

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen

Zerbitzu Nagusia // Servicio Central

de Publicaciones del Gobierno Vasco

### Maketazioa // Maquetación

Begi Bistan

### Argazkilaritza // Fotografía

Iñaki Díez Fernández

### Ilustrazioa // Ilustración

Fernando Ibáñez de Elejalde Villate

### Itzulpena // Traducción

Ana Santos Elortza

### Fotomekanika // Fotomecánica

mccgraphics

### Inprimaketa // Impresión

Elkar-mccgraphics

Kontsumitu osteko paper birziklatua %100ean  
Papel reciclado postconsumo 100%

ISSN: 1135-6391

L.G. // D.L.: VI-825/92



#### Araba

VITORIA-GASTEIZ

• ☎ 945 17 90 30

#### Bizkaia

BILBAO

• ☎ 944 11 49 99

URDAIBAI

• ☎ 946 25 71 25

#### Gipuzkoa

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

• ☎ 943 32 18 59

LEGAZPI

• ☎ 943 73 16 97

I HITZAK ingurumen hezkuntzari buruzko ezta-baidarako topagune bihurtzea du helburu. Hortaz, aldiakaria ez da bertan sinaturik agertzen diren artikuluen erantzule.

I HITZA pretende ser un foro de debate sobre educación ambiental y no se hace responsable de las opiniones expresadas en los artículos firmados.

**ONDAREAZ MINTZATZEA ETA ONDAREA AZTERTU  
ETA BABESTU BEHARRA planteatzea**  
hezkuntzaren eta, beraz, zibilizazioaren  
beharra aipatzea bezalakoa da.

*Duela hamarkada gutxi arte ez ginen hasi  
ulertzen legaturik onena etorkizuneko  
belaunaldien garapena baldintzatzen ez  
duen ekosistema dela. Eta hori baino  
pixka bat lehenagora arte ez ginen  
konturatu gure iraganaldiari buruz  
dakiguna (iraganaldi hurbilena bada ere)  
ez dakiguna baino askoz gutxiago dela.  
Orduantxe hasi ginen kultura-berezita-  
sunak gure nortasunaren funtsezko  
ataltzat balioesten.*

*Bi ideia horiek eskutik lotuta doaz, eta  
balio hedatu gisa finkatu dira gizarterik  
aurreratu eta garatuenetan. Baina  
gizarteok dira, hain zuzen ere, bai  
ekosistemaren lorrindura orokorraren bai  
gizateriaren ondare komunaren  
suntsipenaren eragileak, hainbat  
mendetan kolonizatutako lurraldeetako  
herriak, kulturak, hizkuntzak eta etniak  
desagerrarazi izanak frogatzen duenez.*

*Gaur egun, iraganaldiko garaietan ez  
bezala, geure memoriaren eta geure  
inguruaren berrero izanaren jakitun  
gaudela, edo hori pentsatu nahiko genuke,  
behintzat. Pilatzearen logikak ezartzen  
digun aldaketa etengabeak ahaztarazi  
egiten digu produkzioaren eta kontsu-  
moaren lasterketa non hasi zen eta  
norantz garamatzan, munduan dagokigun  
tokiaren perspektiba galaraziz. Eskolako  
zeregin garrantzitsuen bizitzen ikastea  
dela gogoraraztea da Ihitzen zenbaki  
honen helburu bakarra, ikasgai horretan  
guztiok hasiberriak garela ahaztu gabe.*

### Sabin Intxaurre Mendibil

LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILBURUA  
CONSEJERO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

### Anjeles Iztueta Azkue

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUA  
CONSEJERA DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**ABORDAR EL TEMA DEL PATRIMONIO Y LA NECESIDAD  
DE SU ESTUDIO** y protección es tanto como  
plantearnos la necesidad de la educación y, por  
tanto, la civilización.

*Si tan sólo hace unos decenios hemos empezado  
a comprender que no hay mejor legado que un  
ecosistema que no condicione el desarrollo de  
las futuras generaciones, no mucho tiempo  
antes percibimos que es mucho más lo que  
ignoramos que lo que conocemos de nuestro  
pasado, aun del más reciente, y empezamos a  
valorar las peculiaridades culturales como parte  
esencial de nuestra personalidad.*

*Estas dos sensibilidades van de la mano y se  
han podido establecer como valores extendidos  
en las sociedades más prósperas y desarrolladas.  
Pero son precisamente esas sociedades las  
causantes, tanto del deterioro masivo del  
ecosistema como de la destrucción del  
patrimonio común de la humanidad que supone  
pueblos, culturas, idiomas y etnias de los  
territorios que durante siglos fueron colonizados.*

*La diferencia, esperemos, con los tiempos  
pretéritos es que ahora somos conscientes de  
nuestro papel de verdugos tanto de la propia  
memoria como de nuestro entorno. El cambio  
constante que nos impone la lógica de la  
acumulación, nos hace olvidar de dónde partió  
la carrera de la producción y el consumo y,  
adónde nos lleva, perdiendo la perspectiva de  
nuestro lugar en el mundo. Este número de  
Ihitza sólo pretende hacemos recordar que lo  
más importante que se enseña en la escuela es  
a vivir, pero en esa disciplina, todos somos  
principiantes.*

## Hiru aleko harpidetza // Suscripción por tres números: 5,41

Izen-deiturak edo egoitza // Nombre y apellidos o razón social

Helbidea // Dirección

Posta kodea // Código postal

Herrialdea // Territorio

Telefona // Teléfono

Posta-e // Correo-e

Herria // Localidad

I.F.Z. // N.I.F.

Faxa // Fax

Zenbaki honetatik aurrera // Desde el número

ORDAINKETA. Egin zeure banku transferentzia Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusiaren kontu zenbaki honetara: 2097 0178 11 0010963058. Ez ahaztu zeure datuak ordainagirian zehaztea. Bidali harpide agiri hau helbide honetara: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

FORMA DE PAGO. Transferencia bancaria a: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco. Número de cuenta: 2097 0178 11 0010963058, indicando quién hace el ingreso. Esta solicitud se enviará a: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco: Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

## gaia zabaltzen

### Patrimonio industrial y desarrollo sostenible

- 4** El patrimonio industrial es parte del patrimonio cultural. Debemos velar por su transmisión a futuras generaciones. Joaquín Cárcamo



## jakinaren gainean

- 6** Agenda, albisteak, irakurleen iritzia.

## eta gurasoek... zer?

### Olaberriako herri eskola aurrera!

- 28** Olaberriako Herri Eskolako gurasoek ez dute zalantzarik: eskola, herriaren funtsezko ondareetako bat, babestu egin behar da.




## begiratokia

### Pensar y vivir como un bosque

- 25** La educación ambiental debe partir de experiencias gratificantes de conocimiento directo de la naturaleza.

Giovanni Netto



## klasetik at

- 26** Bertsolaritzak azken urteetan hartu duen garrantzi itzelak euskal kulturaren etorkizunaren gaineko nolabaiteko baikortasuna ematen digu. Abesbatzak eta dantza taldeak ere gure ondarea ezagutzeko eta zuzenean bizitzeko bide dira.

## baliabideak eskura

- 29** Gure inguru naturalaren eta bertan bizi izan den historiaren berri jakitea esperientzia liluragarria da. Edozein herritan paseatzeko modua ez da berdina izango beraren historia ezagutuz gero.

# bitakora kaiera

Ondare naturala eta ondare kulturala errealitate beraren bi alderdi banandu ezinak dira: herrien bizileku den eta euren definizioa eta izaera zor dizkioten ingurunea. Izan ere, berez, ezin da ondare horietako bat goretsi eta bestea ahaztu, edo bata maitatu eta horri besteak eman dizkion berezitasunak baztertu.

## guztiok elkarlanean

### Birziklapenaren aukera artistikoak

- 10** Intxaurrondo Hegoa LHI ikastetxean, praktikara eraman dute Andy Warholen esaldi ospetsua, hau da, artea artistak egiten duen guztia da, eta arte-jarduerak garatu dituzte birziklaturiko gauzak erabiliz. Emaitzaren adierazgarritasuna harritzeko modukoa da.



## eskolako eko-auditoretza

### Eskola, gizateriaren ondare

- 23** Hezkuntza funtsezko eskubideetako den arren, mundu guztiak ez du bertarako irispiderik. Gure eginbeharra da eskubide hori hedatzea eta eskaintzen dizkigun aukerak aprobetxatzea.



## bizkor ibili gero!

### Ondare erabilgarria

- 24** Edozer egiteko prest egongo ginateke, munduan erosotasuna gailentzeko? Hondartzan, ezertarako ere balio ez duen harea gogaikarria saihesteko alternatiba aurkeztuko dizuegu.

## ekin eta ekin

### Geure ingurua irakurri

- 14** Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen ziklorako behaketa.

### Ireki begiak

- 16** Lehen Hezkuntzako bigarren ziklorako ibilaldia.



### Soka-tira

- 18** Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklorako jolasa.

### Gure ondarea

- 19** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen ziklorako eztabaida.



### Izaki bizidunen eskubideak

- 20** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren ziklorako eztabaida.

### Ondare naturala: gizartearen erantzukizuna

- 22** Batxilergo eta Heziketa-ziklorako hausnarketa.

# Patrimonio industrial y desarrollo sostenible

*Egileak ondare industrialak zer den azaltzen digu eta bide batez ondare honek duen balio kulturala azpimarratzen du testuan.*



**Joaquín Cárcamo**

Profesor de Formación Profesional.  
Miembro de la Asociación Vasca de Patrimonio Industrial y Obra Pública.

**SEGÚN UNA DE LAS DEFINICIONES** más aceptadas, el patrimonio industrial se compone de los restos de la cultura industrial que poseen un valor histórico, tecnológico, social, arquitectónico o científico. Estos restos consisten en edificios y maquinaria, talleres, molinos y fábricas, minas y sitios para procesar y refinar, almacenes y depósitos, lugares donde se genera, se transmite y se usa energía, medios de transporte y toda su infraestructura, así como los sitios donde se desarrollan las actividades sociales relacionadas con la industria, tales como la vivienda, el culto religioso o la educación.

Hoy no se cuestiona la importancia e interés de la conservación del patrimonio histórico-artístico, arqueológico o monumental siempre que posea belleza, antigüedad, sea escaso o único, proceda de quienes históricamente han detentado el poder o se refiera a los actos de la inteligencia y la creación. Y, sin embargo, existen construcciones u objetos que pueden no responder a los cánones de belleza establecidos, ser contemporáneos, populares, abundantes en un momento determinado e incluso carentes de valor económico. Son construcciones y objetos que, forman parte de la cultura material del

mundo contemporáneo en un sentido amplio, y dignos por tanto, de ser preservados como parte del patrimonio cultural de la humanidad.

Las fábricas, las minas o las máquinas encuentran en ocasiones difícil encaje dentro de la legislación de protección diseñada a la medida del patrimonio histórico-artístico en su concepción tradicional. El patrimonio industrial debe entenderse como parte integrante del patrimonio cultural aunque, no obstante, su protección legal debe tener en cuenta su naturaleza especialmente frágil.

El reconocimiento legal del valor cultural del patrimonio industrial es por tanto muy reciente. En el ámbito europeo, en 1985 se celebra en Granada la Conferencia Europea de ministros responsables del Patrimonio arquitectónico, que en su Resolución nº2 relativa a la promoción del patrimonio arquitectónico en la vida sociocultural como factor de calidad de vida, se refiere por primera vez a la arquitectura técnica e industrial como parte integrante de un concepto más amplio de patrimonio arquitectónico que debe ser protegido incluyendo *la arquitectura vernácula, rural, técnica e industrial y la arquitectura de los siglos XIX y XX, conjuntamente con su entorno.*



Cargadero de mineral en la ría del Bajo Nervión-Ibaizabal.

Durante muchos años se ha seguido manteniendo aún la consideración del bien de interés cultural como un elemento individual, autónomo, aislado, sin relación con el contexto cultural y medioambiental, lo que ha supuesto un grave error a la hora de definir la escala de intervención. El Consejo de Europa, en su voluntad de ampliar las categorías del patrimonio como parte de un todo, ha tratado de reconocer y considerar este patrimonio tan característico en la recomendación sobre la protección y conservación del patrimonio industrial, técnico y de la obra pública, adoptada en 1990, que sugiere a los gobiernos de los Estados miembros que *estudien la posibilidad de unir sus esfuerzos para mantener y preservar ciertos conjuntos industriales excepcionales que son parte del patrimonio histórico común del continente europeo, añadiendo que al adoptar esta actitud hacia una categoría específica del patrimonio histórico, el objetivo no es sola-*





### Patrimonio cultural y desarrollo sostenible

El concepto de desarrollo sostenible se asocia habitualmente más a la protección del medio ambiente natural que a la preservación del patrimonio construido. Sin embargo existen abundantes razones, sobre todo en nuestro ámbito europeo que justifican una definición del desarrollo sostenible que integre el patrimonio cultural. En nuestro continente, durante milenios el ser humano ha intervenido sobre la naturaleza y muchos de nuestros paisajes actuales son el resultado de esa interacción y producto, por tanto, de la acción cultural sobre la naturaleza originaria. Por otra parte, los principios del desarrollo sostenible son perfectamente aplicables con respecto al medio ambiente cotidiano del hombre, campo de acción de los especialistas del patrimonio cultural.

El patrimonio cultural es, desde luego, no renovable. Cada generación podrá incorporar nuevas creaciones que lo enriquezcan, pero el patrimonio destruido no es recuperable. Es además expresión de la inteligencia del género humano y de su historia y manifestación de la diversidad cultural. Nosotros no somos más que los depositarios del patrimonio cultural y debemos velar por su transmisión a las generaciones futuras, asegurando la continuidad entre el pasado, el presente y el porvenir. Estas y otras razones abundan en el interés de la aplicación del principio de desarrollo sostenible en materia de patrimonio cultural.

Es en la 4ª conferencia europea de ministros responsables del patrimonio cultural, celebrada en Helsinki en 1996, donde se hace un uso más específico del concepto de desarrollo sostenible aplicado al patrimonio cultural. En la declaración final de la conferencia, se afirma como un principio básico la necesidad de situar al patrimonio en el proceso de dicho desarrollo: *Tanto el patrimonio cultural como el natural constituyen el entorno de los seres humanos y necesitan de acciones combinadas para su protección conjunta, desde la perspectiva de una gestión ecológica internacional del espacio.* La conferencia explicita su pensamiento en la resolución N° 2 que titula: el Patrimonio Cultural como un factor de desarrollo sostenible. Así lo ha visto también el Comité Internacional para

la Conservación del Patrimonio Industrial (TICCIH) que en su recientemente aprobada Carta de Nizhni Tagil (2003) declara que: *Continuar adaptando y usando edificios industriales evita malgastar energía y contribuye al desarrollo sostenible. El patrimonio histórico puede tener un papel importante en la regeneración económica de áreas deterioradas o en declive. La continuidad que implica la reutilización puede proporcionar estabilidad psicológica a las comunidades que se enfrentan al repentino fin de una fuente de trabajo de muchos años.*

Europa, pues, ha ido ampliando su visión integradora en sucesivas convenciones: Berna, Granada, La Valetta, Lugano, Estrasburgo y en la que algunos consideran como la primera convención europea de desarrollo sostenible, la convención europea del paisaje celebrada en Florencia en el año 2000. Una muestra de esta nueva concepción se plasma en la revista medioambiental *Naturopa*, editada por el Consejo de Europa, que desde 2001 ha ampliado su temática al patrimonio cultural y del paisaje desde una perspectiva de desarrollo territorial sostenible.

### ¿De la sociedad rural a la sociedad postindustrial?

*La industria, fábrica del paisaje* se ha dicho con gran acierto; y en nuestro País Vasco nada más apropiado. La huella que la intervención humana durante los últimos 150 años de industrialización ha dejado en la naturaleza de un territorio tan limitado y difícil no siempre ha tenido aspectos positivos, sobre todo desde el punto de vista medioambiental. Pero junto a la salvaguardia de la biodiversidad, de los paisajes naturales y de los elementos más destacables de la arquitectura rural o urbana no debiéramos cometer el error de volver a hacer pasar las excavadoras indiscriminadamente por encima de todas las huellas que la industrialización nos ha dejado. Los paisajes mineros o los portuarios, las infraestructuras de transporte o las arquitecturas del trabajo, la vivienda del obrero y la del patrón, o la máquina, forman parte ya de nuestro patrimonio común. Incorporémoslas con criterio y con naturalidad a esta nueva visión integradora del desarrollo sostenible.

*mente considerar los edificios, monumentos técnicos, sitios u objetos de este patrimonio, sino también el entorno físico como un conjunto de conocimientos, de técnicas y de formas de vida.*

La Ley del Patrimonio Histórico Español de 1985 vino a dar cobertura legal a algunas de estas necesidades al disponer en su articulado que *integran el Patrimonio Histórico Español, los inmuebles y objetos muebles de interés artístico, histórico, paleontológico, arqueológico, etnográfico, científico o técnico o al definir como monumentos aquellos bienes inmuebles que constituyen realizaciones arquitectónicas o de ingeniería, u obras de escultura colosal siempre que tengan interés histórico, artístico, científico o social* (el subrayado es mío). Se da cabida así, aunque no de un modo expreso, al patrimonio perteneciente al ámbito científico-técnico de la cultura material, al patrimonio industrial, como testimonio del trabajo y de la producción de objetos de épocas pasadas.

**Subvenciones para actividades de educación ambiental en centros de enseñanza**

El pasado 6 de abril se publicó en el BOPV la convocatoria de estas ayudas a las que pueden acceder todos los centros de enseñanza no universitaria de la CAPV tanto públicos como privados concertados. Las ayudas oscilan entre los 900 euros con que se subvencionan las visitas e itinerarios ambientales; 2.400 euros para estancias en centros de educación ambiental extraescolar, y los 3.000 con que se apoyan los proyectos de Agenda 21 Escolar. El plazo de solicitud expira el 20 de mayo y las condiciones y requisitos se pueden consultar también en la página web del Gobierno Vasco: [www.ej-gv.net](http://www.ej-gv.net).

**El Instituto Alavés de la Naturaleza publica su calendario de actividades**

El IAN nos ha hecho llegar su calendario de actividades. Se trata de una serie de cursos, salidas y debates, interesantes para aquellas personas que quieran profundizar en el conocimiento de la naturaleza: los cantos de las aves, el conocimiento de los anfibios, la energía eólica y la biodiversidad, así como las salidas ornitológicas y botánicas, son los ejes de este programa.

Dada la imposibilidad de concretar las fechas definitivas, lo mejor es ponerse en contacto con este grupo e informarse con antelación: Pedro de Asúa 2, 3º (Gasteiz). Viernes de 18:30 a 20:30. Tlf.: 945 246 606.

**Disponible la versión en euskera del "Módulo de educación ambiental y desarrollo sostenible"**

Aunque ya han transcurrido nueve años desde su primera edición, ocho de la primera versión en castellano, este manual conserva intacta su vigencia, ya que su objetivo es establecer bases teóricas de conocimiento sobre el medio ambiente y su funcionamiento para poder afrontar con éxito la práctica de la educación ambiental. Su autor, Claude Villeneuve forma parte del Programa Internacional de Educación Ambiental de UNESCO-PNUMA.

**LA ESCUELA DE LA NATURALEZA DE ARTIKUTZA VUELVE A LA ACTIVIDAD**

El Ayuntamiento de Donostia ha vuelto a abrir las puertas de esta finca de 3.700 hectáreas ubicada en Goizueta, en lo que se define como la región geológica más antigua de Euskal Herria y una de las más lluviosas de la Península Ibérica. Adquirida en 1919 por el consistorio donostiarra, se ha mantenido siempre en un magnífico estado de conservación, por lo que es un lugar excepcional para el estudio de la fauna y flora autóctonas. La oferta formativa que recientemente se ha puesto en marcha comprende tres programas dirigidos a la Educación Secundaria Obligatoria y abordan el estudio del ciclo integral del agua, la biodiversidad y el bosque como ecosistema.

En Artikutza se encuentra el embalse de Enobieta, construido a mediados del siglo XX, que es precisamente donde se recoge la mayoría del agua empleada para abastecer Donostia. Asimismo, para el progra-

ma dedicado a los bosques, se cuenta con interesantes formaciones de los principales tipos de bosque autóctono: hayedos, robledales y alisedas, en cuyos estratos bajos y lindes se puede apreciar el valor y la abundancia de plantas medicinales, así como la extraordinaria biodiversidad de estos ecosistemas.

**EL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA ASUME LOS COMPROMISOS DE LA CARTA DE AALBORG SOBRE DESARROLLO SOSTENIBLE**

El compromiso de este municipio con la mejora de la movilidad urbana ya ha aparecido reflejado en las páginas de Ihitza (Nº 8), cuando dimos cuenta de las aportaciones del alumnado de los distintos centros de enseñanza que se hicieron públicas en la exposición "Mugi hadi Tolosan". Ahora, con la asunción de los compromisos que figuran en la llamada "Carta de Aalborg", Tolosa da un paso decidido en favor de la sostenibilidad. El texto fue el resultado del primer congreso

europeo por la sostenibilidad a escala municipal que tuvo lugar en 1994 en la ciudad danesa de Aalborg y en el que participaron más de 600 ciudades europeas, entre ellas catorce de la CAPV y Nafarroa.

Prueba de que las cosas ya están cambiando en Tolosa es la construcción de un bidegorri, cuyas obras terminarán el próximo mes de junio, y que será el primer tramo de una red cuya construcción supondrá un coste total de 629.000 euros. Comprenderá catorce tramos en los que habrá quince pasos de cebra elevados que harán disminuir la velocidad de los automóviles.

Los centros de enseñanza van a estar totalmente integrados en la red y el consistorio espera que cuando concluya la ejecución de esta obra disminuya el volumen de tráfico y aumente la calidad de vida de la población. Desde el Ayuntamiento se animará a sustituir paulatinamente el uso del coche por la bicicleta para los desplazamientos urbanos.



## zenbat buru hainbat aburu

Toki arazoak direla eta, IHITZAk beretzat gordetzen du jasotzen dituen gutunak osorik ez argitaratzeko eskubidea. Makinaz idatziriko 30 lerrotik beherako testuak bidaltzea erregutzen dizuegu. Gutunetan egilearen sinadura, beraren datuak eta harremanetarako telefono zenbaki bat jarri behar dira. Ez zaio inori egileen telefono zenbakirik ez helbiderik emango.




IHITZA se reserva, por motivos de espacio, el derecho de no publicar íntegramente las cartas que se reciban. Se recomienda que no excedan las 30 líneas mecanografiadas. Las cartas deben estar firmadas e incluir los datos de quien escribe y un teléfono de contacto. No se facilitarán teléfonos ni direcciones de los/as autores/as.

### Eskolako Agenda 21 bertsotan

Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxean Eskolako Agenda 21ekiko konpromisoa bertsotan kontatzeko ideia originala izan dute. Beraien ekarpen poetikoa jaso dugu hemen, EA21 hedatzeko kanpainarako egindako hainbat logotiporekin batera.

Udal pleno Aretora  
gatoz sinatzeko  
agenda hogeita bata  
guk martxan jartzeko.  
Asmo onarekin bai  
konprometitzeko  
denon ahaleginekin  
natura zaintzeko.



Lerro hauen gainean Bustitxo duzue, Eskolako Agenda 21 maskota marrazkien finalista.  
Egilea: Igor Romero (5. maila A).

Deba Garaiko ibaiak  
zikintxo ditugu  
zaborrak eta keak  
guk asko dauzkagu  
garbitu eta zaindu  
beharko ditugu  
zuri alkate jauna  
esaten dizugu

Doinua: Maritxu nora zoaz

5.D GELA

Ingurumena bada  
gu guztion lana  
errespetatuz  
eskola hitzarmena  
gure eskutan dago  
lurran iraupena  
etorkizunerako  
zaintzea onena.



Eskolako Agenda 21erako maskoten lehiaketako aipamen berezia: Ikerrek, Xabik eta Anderrek egindako Atxebio izenekoa.

Agenda hogeita bat proiekturako  
aurten tokatu da ura  
gure kemenaz ikas dezagun  
hobeto zaintzan natura  
horrela ez bada gure mundua  
joango zaigu pikutara  
denon artean zintzo jokatzuz  
hobeto biziko gara

Doinua: Pello Joxepe

5.A GELA



Honako hau Tantiki da, Eskolako Agenda 21erako maskoten lehiaketan finalista geratu zirenetako beste bat. Egilea Gorka Urrutia da (4. mailakoa).

### Urola Ibaiaren Egunean 1.580 kilo zabor bildu zituzten auzolanean

Legazpiko hiru ikastetxek Hondakin gaia landu zuten iaz Eskolako Agenda 21n. Ikasleek Udal Forroan alkateari aurkeztutako proposamenetako bat herritik pasatzen den Urola ibaiko zaborrak biltzeko auzolaneko ekitaldi bat antolatzea izan zen eta Udalak baiezkotzea eman. Ikastetxeekin larunbat ba-

tean egitea adostu zenetik aurrera ikastetxeetako Ingurumen Batzordeek informazio kanpainak egin zituzten ikastetxeetan ikasle, irakasle eta gurasoen izena emateko eta herrian, helburu berdinarekin, udaletxeko ingurumen arduradunak deiak zabaldu zituen elkarte, komunikabide eta abarretan. Jende ugari bildu zen auzolanerako Ibai egunean, nahiz eta eguraldi kaskarra izan. Euripean, partaideak blai egin ziren zaborrak biltzen

aritu ziren bitartean. Zaborrak herriko industria bateko baskulan pisatu ondoren herriko plazan jarri ziren ikusgai aste betez honako testua zuen pankarta batekin *Ez da garbiagoa asko garbitzen duena, gutxi zikintzen duena baizik*. Lana amaitu eta, herriko trikitilarien doinuak entzunez, herriko elkarte batek prestatutako mokadu bat eskeini zitzaion partehartzaileei herriko plazako arkupeetan.

LEGAZPIKO UDALA

## Consumo responsable en el C.P. Serantes

Este curso en la Ecoescuela Colegio Público Serantes de Santurce estamos trabajando el tema de los residuos. Son muchas las actividades que estamos llevando a cabo para concienciarnos de nuestra responsabilidad en la producción de los residuos.

Estamos haciendo el mapa de los residuos del colegio para elaborar un plan de mejora y reducción de residuos en las dependencias que sea posible, así como estructurar un sistema de reciclaje global en todo el colegio.

Pero la actividad más divertida ha sido el *Nos vamos al Mercadillo*. Nuestro objetivo es reducir los residuos y estamos convencidos de que todo empieza por el consumo. Se trata de reducir los residuos en origen, en el momento del consumo. Por eso queremos formar consumidores responsables, éticos y sostenibles.

Así organizamos un mercadillo en el que todos los niños y niñas de Primaria y los de 5 años de Infantil, tenían la oportunidad de comprar productos. Cada persona tenía un bono de cien euros que los tenderos iban reduciendo en razón del valor de la compra efectuada en su puesto. Había un puesto de comida, otro de ropa y calzado, un puesto de ocio y cultura, un cuarto de cosas de casa y el último era un quiosco en el que se ofertaban chucherías, revistillas... También había un puesto de control en el que se podía entregar una ayuda a cualquier ONG y en el que se cotejaba la compra realizada. Los productos, simulados, tenían en sus etiquetas datos como la caducidad y otras características como dónde y quién los había hecho, si llevaban regalo o no, sus ingredientes... Cada persona tenía que hacer, al menos, una compra en cada puesto. Y tenían que prestar atención para hacer una compra saludable (caducidad, componentes...), sostenible (evitar los envases, de producción limpia...) y



En la imagen superior, los puestos de nuestro mercadillo. Debajo, Pintzelo reparte diplomas.

ética (comercio justo, no realizada por niños ni en talleres clandestinos...). Al final el puesto de control valoraba si la persona era merecedora del carnet de consumidor responsable o no. Y en la fiesta que hicimos el último día Pintzelo, nuestra mascota, otorgó diplomas a las compras mejor realizadas por cada nivel. Nuestro alumnado se acercó de esta forma a lo que es un consumo responsable y comprobó cómo se puede reducir el volumen de residuos. Nuestra Agenda 21 Escolar ha dado así otro paso en el camino de la sostenibilidad y en hacer cotidianos comportamientos ciudadanos como los que se definen en nuestro Contrato con la Tierra (código de conducta) que muchas familias ya han firmado. Un saludo y los mejores deseos sostenibles para la comunidad de Ecoescuelas.

JOSÉ MANUEL ECHEVARRÍA IGLESIAS  
(CHEVA)

## Samaniego Herri Ikastetxearen eraikin jasangarri eta bioklimatiko Haur Hezkuntzarako

Aurtengo maiatzean hasiko dira Haur Hezkuntzarako izango den eraikin berriaren obrak. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Haur Hezkuntza ikastetxe berria eraikiko du Tolosako Udalak eman-

dako lurzoruan. Proiektua Labayen arkitektura estudioak egin du. Beronek eraikuntz jasangarriaren eta bioklimatikoaren irizpideak jasotzen ditu, Samaniego Ikastetxearen hezkuntza komunitateak bultzatuta.

Prozesua luzea eta neketsua izan da, bidean hainbat oztopo topatu baititugu. Eraikin honen proiektua oso interesgarria bada ere, badakigu erabateko eraikuntza jasangarria izateko, ezaugarri batzuk falta zaizkiola. Hala ere, pozik gara egindako ahaleginaz, Euskadiko Autonomi Elkartearen, Ikastetxeetako eraikuntzetan lehenengo aldiz horrelako proiektua burutu delako eta horrek eraikuntza berrietan aurrerantzean izan dezakeen eraginarengatik.

Parte hartu duten erakunde guztien arteko ibilbidea oso positiboa izan da (Hezkuntza Sailako baliabide material eta antolamendu departamendua, Hezkuntza Zinegotzia, Labayen arkitektura estudioa, Tolosako Udaletxeko Hezkuntza Departamendua eta Samaniego Ikastetxea), izan ere, egiaztatu baitugu, jarrera ireki eta hartzailerik batetik abiatua, aurrera egin daitekeela Ingurumenaren mesedetan eta Garapen Jasangarriaren alde.

Planteamendu hau helburu praktikoa eta hezitzailea jarraituta kudeatuko da, horretarako horma-irudi interaktiboak jarriko direlarik eta baita monitore kontrol sistema ezarriko. Monitorearen bidez, baliabideak kontrolatuko dira eta era berean eguneroko ohiturak eta praktikak.

Ezaugarri hauetako eraikinak, eskolak, bizitza eta gizartearen garapenari buruz zeresana duela, garbi erakusten du, ingurumena kontutan hartuz, baliabide naturalek dituzten mugak ezagutaraziz eta beraiekiko izan behar dugun errespetua sustatuz.

Era honetako ikastetxeak berarekin du irakaskuntza eta ikaskuntza zuzena, eguneroko funtzionamenduan integratu daitekeena.

ARANTZA IRURETAGOiena.  
SAMANIEGO IKASTETXEKO INGURUMEN  
BATZORDEKO ARDURADUNA



# bitakora kaiera

## Zer da ondarea?

Ondareztat iraganalditik hartu, orainaldian bizi eta gozatu eta etorkizuneko belaunaldiei utzi behar diegun herentzia ulertzen dugu. Ondareak ekologia, kultura, arte, paisaia, industria, tradizio eta abarren ikuspuntutik baliotsuak diren baliabide eta elementu guztiak hartzen ditu.

### Baliabide historiko eta kulturalak

#### Giza kultur baliabideak:

dauden pertsona ospetsuak kultur alorren baitan.

**Baliabide arkeologikoak:** giza-asentamenduak, lanerako tokiak, ehorzketak, aintzinako arte eta monumentu eta lanabes tresnak, aztarnategiak,...

#### Baliabide etnologikoak:

erronkeri-lekuak, aintzinako topaketa-puntuak, kultura tradizionalaren adierazpen aipagarriak beren aspektu sozial, material edo espiritualean (mitoak, elezaharrak, jantzi, artisautea, lanabes, tresna, ohiturak, ospakizunak...).

#### Baliabide historikoak:

bertako historiaren aspektuak adierazten dituzten giza-jarduerak: lekuak, eraikinak, egiturak, obje-

tuak eta nekazaritzaren edo industriaren era tradizionalak; gertaera historiko aipagarriak gertatu zireneko guneak, nahiz eta ez geratu aztarnarik; pertsona garrantzitsuekin erlazionatutako toki, eraikin, zuhaitzak...)

### Baliabide artistikoak

**Arkitektura:** balio artistikoa duten eraikin eta lorategiak; beren motan oso adierazgarriak diren eraikin eta lorategiak; arkitekturan, diseinuan eta injineritzan lorpen handiak adierazten dituzten eraikin eta lorategiak; arkitekto edo eraikitzaile ospetsuen lanak.



**Pintura:** pintura askotan agertzen diren paisajeak edo objektuak.

**Literatura:** literatura laneetan goraipatutako paisaje eta kultur-baliabideak.



**Beste batzuk:** musika, zinema, eskulturarako baliabideak, paisaje babestuak.

### Natur-baliabide bereziak

Ekintza geologiko arraroren (kobazuloak, dunak, ur jauziak) bat duen tokia; interes geomorfologikoko guneak; suntsitzeko edo agortzeko zorian dauden fosil-hobiak; berezitasun paisajistikoa duten guneak; panoramikaz edo toki bereziak ikusteko behatokiak; desagertzeko zorian dauden landareak edo animaliak bizi diren guneak; hegaztien migrazioko pasalekuak; ekotono (bi komunitate ekologikoren transizio-aldea, adibidez, basoa eta belardien muga, lur eremu bat eta itsasoa...) bereziak; ekosistema arraro eta baliotsuak; zuhaitz monumentalak tamaina edo adinarengatik.

### Baliabide zientifiko-hezkuntzakoak

Gaurko edo lehengo natur-prozesuen adibidetzat har daitezkeen guneak; helburu zientifiko edo heziketakoarekin erabil daitezkeen giza-jardueren alteratutako tokiak (adibidez, estrakzio-jardueren gatik kaltetutako lurra errestauratzeko ikerketak); espezieen banaketaren adibide izan daitezkeen eremuak; ekosistemak adibide tipikoei dagozkien eremuak; fenomeno meteorologikoen eraginak ohizkoak baino nabariagoak dituzten eremuak; lur erabilera tradizionalak: terrazetan eginiko kultiboak etabar.



### Iturria:

Guía para la elaboración de estudios del medio físico,  
Serie Monografías, MOPT, Madrid 1992).





# Birziklapenaren aukera artistikoak

*Intxaurrondo Hegoa ikastetxeak  
eskultura arloko sormen-lana  
etxeko hondakinekin  
lotzearen aldeko  
apustua egin du*

**ARTERANTZ BIRZIKLAPENAREN** bitartez. Esaldi horrekin azaldu ahal genuke, labur-labur, Intxaurrondo Hegoa ikastetxe publikoak ikasturteko hirugarren hiruhilekoan egiten duen proiektuaren helburua. Zazpi astean zehar, gutxi gorabehera, ikasleak artearen praktikan murgiltzen dira, gainerako jakintza arloekin ere lotuz. Gozaraziz irakastea, zioten klasikoek, eta ikastetxe honetan, irakasleak, ikasleak zein familiak, guztiak dabilta ataza

horretan buru-belarri. Esperientziaren emaitzak erakusteko, festa handi bat egiten da amaieran.

Ilusio orokorra ikastetxearen gatzetasunak azal dezake, nolabait. Intxaurrondo Hegoa ikastetxea duela sei urte sortu zen, altuera txikiko eraikinez osaturiko eta urbanizazio zainduko Donostiako auzo berri honekin batera ia. Oraingo ikastetxea herri txiki bat gogorarazten digun auzoa baino berriagoa da, milurtekoarekin batera estreinatu zen eta. Eraikinak, kanpoaldetik, trenaren itxura du, eta barrutik, itsasontziarena, auzo-

ko umeen abenturen helmuga bailitzan diseinatuta dagoelarik. Eta bere ibilbidearen lehenengo urte hauetan, konparazioa ez dago errealitatetik oso urrun: ikasturte bakoitza esperientzia berria da, batez ere ikastetxea inauguratu zuten eta bide-erakuslearena egiten duten ikasleentzat.

Proiektua martxan jarri zen lehenengo aldian, pintura izan zen aukeratutako arte arloa, baina birziklapenaren eta sormenaren arteko benetako lotura hurrengo ikasturtean etorri zen, eskulturaren eskutik. *Ideia CEIDAn ikastaro bat egiten ari ziren hiru irakaslek proposatu zuten. Irakasle horiek, ikastaroan jasotako iradokizunetan oinarriturik, proiektuaren gidoia prestatu zuten*, dioskue ikastetxeko ikasketa buru María Jesús Ausinek eta Lourdes Lasa irakasleak.

*Ikasleak gaian sartzeko, birziklatzearen garrantzia aipatzen duen "Ane eta Julien" ipuina irakurri genuen. Hasiera-hasieratik, bi adineta-ko ikasle-taldeek arteko lankidetzan oinarritu ginen: 4-5 urtekoak 3 urtekoekin elkartu ziren jolasteko. Era berean, aurreko urteko pintura-erakusketa ekarri genuen gogora, eta Intxaurrondo auzoan paseatzera irten ginen, bertako eskulturak ikusteko.*

Artea eta ingurumena loturik joan ziren proiektuaren hasiera horretan, eta auzoko eguneroko bizimoduak ere egiten zuen bat lotura horrekin. *Edukiontzia-zer diren eta hondakin mota bakoitza dagokion koloreko edukiontzian sartu behar dela azaldu genien, eta etxetik tetrabrikak eta plastikozko ontziak edo arrautza-ontziak ekartzeko esan genien*, azaltzen digu Lourdes Lasa. Etxetik ekarritako gauza horiek edukiontzian amaitzea baino xede itzaltsuagoa izan zuten, ikastetxeko liburutegira joanez gero egiazta daitekeenez, bertan baitaude, guztion gozagarri, zaraman amaitu behar zuten gauzak etorkizunean miresteko berreskuratu zituzten Haur Hezkuntzako artista goiztiarren ekarpenak. Aldi berean, azken eskulturen aurkezpenarekin batera egingo zen antzezlanaren prestatzen hasi ziren.







*Ikastetxea duela sei urte eraikitakoa da, eta diseinu modernoa eta funtzionala du.*

Horiexek dira, ziurrenik, proiektuaren alderik jostagarrienak. Izan ere, esperientziak umeen ikaskuntza arlo guztiak hartzen ditu,

Inguruaren Ezaguera, Matematika, Gorputz Hezkuntza zein Hizkuntza. Esaterako, auzoko eskulturak ikusteko irtenaldia Inguruaren

Ezaguerearen arloko jarduera izan zen. María Jesús Asínek azaltzen duenez, *eskultura bakoitzari buruzko fitxa bat egin zuten, eskultura zizelkatzeko erabilitako materiala, neurriak, formak, Intxaurrondon duen kokalekua eta eskultoreen biografia jasotzeko.*

Matematika arloan, Jorge Oteiza maisuaren klarionezko lanetara jo genuen, geometria, bolumena eta espazioa lantzeko erreferentzia bikaina dia eta. Oso ezagunak dira Oteizak klarionez hainbat figura geometriko eratuz egindako esperimentuak, geroago burdinaz egingo zituen lanen zirriborrotzat. Berak ere maite zituen birziklapena eta material xeheak (alanbrea eta latorria ere erabili zituen), eta honako esaldi hau utzi zien gero-ko belaunaldiei: *“Latorrian estatua hazi egiten da familiarean, eta, orduan, burdinak galdu egiten du garrantzia erakusketetarako materializat. Latorrizko formatu txikie-*



*Lanean hasi aurretik, artista ospetsuen eskulturak aztertu zituzten ikasleek.*



tan, klarion zati txikien multiploetan eta alanbrean datza adimena; akatsa burdina dago, eskultorea formatu esperimental txikietan ez badago" (1968an Madrilen argitaratutako Oteiza 1933-1968 lanaren *Estética del huevo. Mentalidad vasca y laberinto epilogotik hartua eta itzulia*).

Eta goreneko unea Txillida-Lekurako bisitaldia izan zen. Hori baino lehen, Hernani museotik ikasleen bisitaldietarako erabiltzen duten material didaktikoa bidali ziguten Intxaurrondo Hegoa ikastetxera. Materiala sakon prestatu ondoren, proiektua amaitzeko modurik onena beste euskal eskultore handi horren museorako ikustaldia izan zen. Han, 5 eta 6 urteko ikasleek (guztiak ezin izan ziren joan, jakina) zuzenean ikusi ahal izan zituzten izadiarekin harmonian zizelkaturiko materiaren ahalmenak.

Proiektu guztiei bezala, eskulturarekin loturikoari ere ikasleek, irakasleek eta gurasoek parte hartu zuten ekitaldi publiko batek eman zion amaiera. Gurasoek gogotsu hartu izaten dute parte hirugarren hiruilekoan egiten den esperientzia horretan. Horren zergatia laguntzaileetako batek, Silvia Arribasek, azaldu digu: *Ikastetxe txikia da (150 ikasle ditu, gehienez) eta*

*guraso gehienok ume bakarra dauka-gu oraingoz; gainera, kanpoan lan egiten ez duten edo lansaio erdia egiten duten ama askotxo daude. Horrez gain, ikastetxeak oso komunikazio ona du gurekin, eta parte har dezagun iradokitzen digute behin eta berriz, dokumentazioa ekarriz edo, esperientziarekin zerikusia duen lanbide edo zaletasunen bat baldin badugu, zuzenean parte hartuz, adibidez.*

Ekarpen horiekin proiektua aberastu egiten da. *Ildo horretan ere, ikastetxean metodologia konstruktibista lantzen ari den irakasle talde finkoa dago, eta horrek erraztu egiten du lankidetzaren erantsi du Silvia Arribasek. Argi dago Intxaurrondo Hegoa ikastetxe koentzart ikaskuntza ez dela ikasgelan amaitzen, eta eguneroko bizimodu osoa hartzen duela. Guretzat ere aberasgarria da, horrela badakigulako umeak eskolan zer egiten ari diren, haiek hain txikiak izanik kostatu egiten baitzaie azaltzea.*

#### Orkestra birziklatua

Bai, orain arteko proiektu guztiak ingurunearekin loturikoak izan dira. Eskultura-proiektuan plastikozko botilak eta tetrabrikak erabili genituen artelanak egiteko, eta, hurrengo ikasturtean ere, musika-

Egitura hau Norman Fosterrek proiektatutako eraikin baten lehenengo zirriborroa izan liteke. Altxairuz eta beiraz estalirik imajinatu besterik ez dugu.



rekin loturiko proiektuan antzeko zerbait egin genuen. Orduan, elektrizitate-kableak sartzeko erabil-

## Beste esperientzia interesgarri batzuk

### Aguraineko aberastasun historikoaren bila



Garazi ikastolako ikasleak Aguraingo bisitan interes handia azaldu zuten.

Legutioko Garazi ikastolan, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetak ikasleak esperientzia



berezi batean ari dira parte hartzen, alegia: Arabako Lautadako ondarea ezagutzen,

batez ere Agurainekoa. Irteerak bi maila horietako ikasleek eurek prestatzen dituzte, elkarrekin, informazioa liburutegian bildu eta gero. Horrela jakin dute etxeak eta jauregiak eraikitzeo harriak Iturrieta menditik ekarri zirela, eta nola eraldatu duen paisaia industriak. Azoketara ere joaten dira, bertan zer produktu saltzen diren eta produktuok nola prestatzen diren jakiteko. Helburua, azken finean, eskualdeak paleolitikotik gaur egun arte nolako aldaketak izan dituen modu dibertigarrian jakitea da.





tzen diren plastikozko tutuak eta jogurt poteak berreskuratu eta haize-instrumentuak egin geni-

tuen, eta kartoizko kutxekin, perkusio-instrumentuak; era berean, soka zaharrak eta kartoiak erabiliz, gitarren imitazio bikainak lortu zituzten.

Musika arloko proiektuan, Hamelingo txirula-jolearen ipuinak eman zien hasiera ariketei; baina, eskultura-proiektuan bezala, Inguruneraren Ezagueraren arloa izan zen eragile nagusia. Entzunaldiei esker, munduko hainbat kultura musikal ezagutu genituen, bai eta horiek darabiltzaten musika-tresnak ere. Era berean, instrumentu horietako asko beste xede batzuetarako erabiltzen diren materialak birziklatuz fabrikatzen direla jakin genuen.

Gainerako arloak irudimenaz eta guztien lankidetzaz baliatuz uztartzen dira. *Esaterako, hizkuntza irakasgaian, gaiarekin zerikusia duten eta ikasgela bakoitzean landu daitezkeen testu egokiak bilatzen dira, dioskue Lourdesek eta María Jesusek. Eta txikientzat, zer? Musika-tresna bakoitzari izena ipini eta irakurketa eta idazketa lantzen dira horrela. Amaierako festa munduaren inguruko bidaia bailitzan planteatu zen, aurkeztzen zen leku bakoitzeko koreografiarekin. Ikus daitekeenez, Intxaurren Hegoa ikastetxean, ikasturteko azken*



*Erdialdetik, auzo guztia ikusten da; horrela, ikasleek erraz lekutu ahal dute ikastetxea bere ingurunean.*

hiruhilekoa ezagutzaren eta jolasaren arteko bateratasuna ospatzeko aukera izaten da, ikastetxea ikasge-lak dauzkan tren itxurako eraikin polita baino gehiago dela erakusteko.

## Lezo, turismoko gidariak prestatzen

Lezoko Batxilergo Institutuan, DBHko 2. mailako ikasleak turismo-gidari trebe bihurtzeko tailerra garatu zen 2002-2003 ikasturtean, eta, tailerraren barruan, herriari buruzko bi gida turistiko prestatu, argitaratu eta Lezon bertan zabaltu zituzten. *Jardueraren helburua*, gogoratzen du Fernando Durana irakasleak, *ikasleek, Lezoko monumentuak ez ezik, bertako ondare etnografikoa eta paisajistikoa ezagutzea zen. Lehenengo esperientzian, Gurutze Santuari, San Joan Bautista elizari edo kale Nagusiari buruzko iruzkinak jasotzen zituzten triptikoak argitaratu zituzten. Bigarrenetan, izenburukoa, inguruko baserrietan zeharre-*



*Lezoko ikasleak turismo gida argitaratzeko buru belarri aritu dira.*

ko ibilbidea egin zen. Gai horrek liburuxka bat egiteko besteko edukia ematen zuen, hasieran karobien, sagardoaren eta baserria-

ren gaineko iruzkin orokorra eginda, herriaren inguruetan aurki daitezkeen erakusgarri zehatzak aurkeztuz.



## Geure ingurua irakurri

### HELBURUAK


- Inguru hurbila aztertzea.
- Irteeran ikusitakoa bertan bete diren fitxetan oinarrituz deskribatzea.

### Jardueraren garapena

Irteera egin bitartean, tartetxo batez, informazioa biltzean datza jarduera. Ikasleak binaka edo hirunaka antolaturik, fitxa-eredu bana beteko dute.

Gero, ikasgelan, iruzkina egin eta fitxak landuko dira. Helburua ez da ikustea bakarrik, begiz aztertzea

baizik. Datu eta behaketen bilduma horrekin, *begirada berri* horri esker ikusi dugun guztiaren laburpena eta deskribapena egin ahal izango ditugu. Edozein irteeratan landu daitezkeen alderdi batzuk jasotzen dituen eskema grafikoa proposatzen dizuegu hemen.








Fitxan, testuaren ordeztu, marrazkiak, piktogramak edota ikasgelan erabili ohi diren kodeak ipin daitezke, gero, guztion artean, horiei buruz mintzatzeko.

INGURUAREN IRAKURKETA HONDAKINAK

DATA: 2004KO AZAROA 11

TALDEAREN IZENAK: NEKEA / INIGO / ANE

ZENBATU		DESKRIBATU		SORTZEN ZAIZKIGUN GALDERAK ZER? NORK NOIZTIK? NORA?
ZER	ZENBAT 1 2 3 4 5	NOLA? 😊 😐 😞	NON? 👤 👤	
	2	😊	👤 👤 parke	
	4	😞	👤 👤 burua	
	1	😐	🚗 kalea	

## Ingurua irakurtzeko 10 alderdi

### 1. Pertsonak.



### 2. Espaloiak eta errepideak.



### 3. Hiriko ekipamenduak.



### 4. Eraikinen kanpoaldea.



### 5. Animaliak eta horiekin zerikusia duten gauzak, tokiak edo osagaiak.




### 6. Landareak eta horiekin eta berdeguneekin zerikusia duten gauzak edo osagaiak.



### 7. Garraioarekin eta mugikortasunarekin zerikusia duten elementuak.




### 8. Hondakinekin zerikusia duten elementuak, tokiak eta gauzak.



### 9. Informazioa ematen diguten elementuak.



### 10. Ur, gas, elektrizitate eta telefonoekin zerikusia duten gauzak.







*Geure ondare hurbilenari begiratzea proposatzen dizuegu, normalean, hurbilegi egoteagatik agian, kasu handirik egiten ez diogun inguru horri, alegia. Jarduera hau egiteko, begiak ondo ireki eta adi-adi aztertuko dugu hain ezaguna izateagatik erreparatu ohi ez diogun "paisaia".*

## Ireki begiak

### HELBURUAK

- Ondare kontzeptura hurbiltzea.
- Aldaketa eta iraunkortasun kontzeptuak lantzea.
- Ondarearen egoeraz eta ondarea zaintzeko arazoez ohartzea.

### Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- PLASTIKA.


### Paseatu ...

Ikasleei auzoan, herrian edo hirian zeharreko paseoa egitea proposatu eta gustuko duten toki edo eraikin bat aukeratzeko esango diegu. Gero, toki edo eraikin hori marraztea eskatuko diegu.

### Gogoeta egin

Paseoa eta marrazkiak abiapuntu hartuta, guztion artean gidoi honetako galderetan oinarrituriko gogoeta egitea proposatzen dizuegu.

1. Zergatik aukeratu dugu toki hori? Zergatik dugu gustuko? Zer berezitasun du? Eraikina bada, honako alderdi hauei erreparatu ahal diegu: forma, tamaina, koloreak, materialak, apaingarriak, aldamenen dituen lorategiak, zuhaitzak, ibaiak eta bestelako tokiak...





2. Lan egiteko, bizitzeko ala beste zerbaitetarako lekua da? Nork erabiltzen du gaur egun? Badakigu ezer pertsona horien ogibideei buruz?
3. Nolakoa da toki edo eraikin hori dagoen kalea? Zer dauka inguruan? Zertan du antza eta zertan bereizten da ingurutik? Bertatik, leihotatik (eraikina bada), zer ikusten da? (Saiatu marrazten).
4. Noiztik dago hor? Toki zaharra bada, zergatik uste duzu iraun duela? Nork erabiltzen zuen lehen? Nola edo zertarako erabiltzen zuten?
5. Nolakoa zen inguru edo kale hori, eraikina altxatu edo toki hori eratu zenean? Zer zeukan inguruan? Zer ikusten zen bertatik? Gogoan izan, gauzak kontatzeko, marrazkiak erabil daitezkeela beti...

#### Gertatu diren aldaketei erreparatu:

1. Konparatu 4. eta 5. galderei eman diezuen erantzunak 2. eta 3. galderen erantzunekin. Zer alde dago erantzun horien artean? Zertan aldatu da tokia?
2. Zure ustez, zer aldatu da hobera eta zer txarrera, denbora iraganda?

#### Kontserbazioa baloratu

Eman dezagun alkatea zarela. Zeuk aukeratu duzun toki horretan etxeak eraikitzeko baimena eskatu dizute, herrian etxe-premia handia dago eta. Emango zenieke baimena? Zergatik?





# Soka-tira

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- HIZKUNTZA.
- GORPUTZ HEZKUNTZA.

**SOKA-TIRALDI BAT EGINGO DUGU.** Gure soka termometro moduan erabiliko dugu, bi taldeen indarrak neurtzeko eta behar izanez gero, zuzentzaileak jaritzeko. Soka-tirak neurtuko du momentuko gure ondarearen egoera, eta baita, gure esku artesa, bere etorkizuna. Proposatutako ariketa gauzatzeko, lehen-dabizi, gai zerrenda bat osatuko dugu eta guztira esaldi bat gelakide bakoitzeko osatuko dugu. (Begiratu adibideko taulatxoa). Hau egin eta gero, esaldi bakoitza gelakide batekin erlazionatuko dugu,

## HELBURUAK


- Inguruko ondareaz jabetzea.
- Zaindu eta hobetzearen jarrera bultzatzea.

## MATERIALAK

- ◆ Soka

eta azkenik klasekideen artean adostu esaldi bakoitzarekin duzuen iritzia. Taldeak osaturik daudenean: Sokaren alde batean *Ona* markatu dituzuen esaldien ordezkariak jarriko dira eta bestean *Txarra* markatu dituzuen ordezkariak. Hasi tiraka.

Baliteke tiraldian aldaketak egin nahi izatea, horretarako zerrendatu aurkitu dituzuen arazorik larrienak (guztira gelakideen kopurua erdia baino ez) eta zuen ustez arazo horiek konpontzeko behar dena (ideien kopurua klasekideen erdia beste), eta zuen esku dagoena egin: dagokionari jakinerazi edo ahal izanez gero zuek zeuek ekin lanari. Ea ondo aritzen zareten!



## ESALDIA

## GELAKIDEA

## EGOERA ONA

## EGOERA TXARRA

Garraio publikoa

Maider

Autobus linea bakarra dago eta maiztasuna eskasa da

Herriko kaleetan dagoen zarata

Asier

Ez da gehiegi entzuten

Parkeko paperontziak

Julene

Apurturik daude eta gainezka

Parkeko zuhaitzak eta landareak

Jolastokia

Herriko espaloiak

Eserlekuak

Bide-gorriak

Errekako bazterrak

Errekako garbitasuna

Eraikin ederrak (eliza, udaletxea, dorretxeren bat...)

Ikastetxea

Kultur etxea

Kiroldegia

Inguruko basoak





# Gure ondarea

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- GIZARTE ZIENTZIAK.
- HIZKUNTZAK.

## HELBURUAK

- Ondare izenpean sar daitezkeen elementuak ezagutzea.
- Norberarentzat gustokoenak diren ondareko elementuak identifikatzea eta aukeraketa horren zergatiak bestekin konpartitzea.
- Ondareko elementu garrantzitsuenak bestekin adostea eta komunikatzea, klasean eztabaida sortuz.

## MATERIALAK

- ◆ Argazkiak eta/edo inprimakiak.
- ◆ Interneteko konexioa.

**ALE HONETAKO BEDERATZIGARREN** orrialdean ondarea zer den definitu dugu. Honi jarraituz ariketa berri bat proposatuko dugu. Bertan ondarearen inguruan ariko gara eta ondarearen barrukaldea ezagutuko dugu ariketa honen bidez.

**1.** Lehendabizi aukeratu bakarka baliabide historiko eta kultural mota bakoitzeko bi elementu gehienez norberarentzat garrantzitsuenak direnak.

**2.** Talde txikietan elkar jarri eta adostu mota bakoitzeko bi elementu gehienez.

**3.** Amaitzeko, klase guztiaren artean adostu mota bakoitzeko hiru elementu gustokoenak. (Aukeratutako elementu hauen argazkiak/inprimakiak/marrazkiak /... gelako paretetan/pasiloan/... jartzeko erabil daitezke.). Horrela, ondarea gertu izango dugu.







# Izaki bizidunen eskubideak

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- NATUR ZIENTZIAK.
- GIZARTE ZIENTZIAK.
- GAZTELANIA.
- ETIKA.

## HELBURUAK

- Bioaniztasuna gizakion ondarea dela ezagutzea.
- Animaliek ere *eskubideak* dituztela jakitea eta norberak hori gauzatzeko baliabideak jartzea.
- Gizakiok bizidunen zati bat besterik ez garela ikastea eta onartzea.
- Eztabaidarako teknikak ikastea.
- Informazioa bilatzen ikastea.
- Web guneetan bilakaera egitea.

## MATERIALAK

- ◆ **Animalien Eskubideei buruzko Deklarazio Unibertsala** (euskaraz) lortzeko: [http://www.zientzia.net/artikulu.asp?Artik\\_kod=6459](http://www.zientzia.net/artikulu.asp?Artik_kod=6459). Artikulu honen 5. orrian UNESCOk 1977an eta Nazio Batuen Erakundeak (NBE) onartua.

**GIZAKI ASKOK** uste dute animaliak bere onurako daudela soilik munduan, eta hori ez da horrela izan behar. Hausnarketa sakona egin behar dugu animalien eskubideetaz. Hona hemen zenbait galdera:

- Izaki bizidunek bizitzarako eskubideak dute guk bezala?
- Haien bizia eta honen kalitatea berebiziko garrantzia du?
- Gizakiak bere eskura dituen baliabideak erabili behar ditu animalien egoera hobetzeko?
- Duintasunez bizi behar dute animaliek edo eskubide hori bakarrik giza-kiona da?

Animalien babesleen iritziz, gizakiak ez du beste izaki bizidunen biziaz baliatzeko inolako eskubiderik.





## Jardueraren garapena:

Azal ezazu ondorengo baieztapenei buruz duzun iritzia. Adieraz ezazu gurutze batez ados zaudela, edo ez zaudela ados, edota ez zaudela seguru.

BAIEZTAPENAK	ADOS	EZ NAGO ADOS	EZ DAKIT
1 Gizakien biziak beste animalien biziak baino gehiago balio du.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
2 Gure herrialdean ongi tratatzen ditugu animaliak.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
3 Bidezkoa da animaliekin esperimentuak egitea, baldin eta horiei esker gizakien sufrimendua arintzen bada.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4 Geuk bakarrik juzka dezakegu animalien adimena.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5 Ongi dago basabereak ehizatu eta barrutietan ixtea, hartara espezie batzuk salba baitaitezke.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
6 Ongi dago larruzko zamarra daraman pertsona bati kargu hartzea nahiz eta laguna izan.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
7 Ez nuke eragozpen handirik izango neronek hazitako animalia bat hiltzeko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
8 Haragia jateak hiltzaile izatea dakar berekin.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
9 Animaliekin erruki gabe jokutzen dutenek, gizakiekin erruki gabe jokatzeko joera handiagoa dute.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
10 Okerragoa da etxe barruko animalia bat lapurtzea, kotxe bat lapurtzea baino.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
11 Animaliekiko esperimentuak behe-mailakoetara mugatu behar dira, adibidez ornogabeetara.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
12 Abandonatutako animaliak hil aurretik, farmakologi produktuak probatzeko erabili behar dira.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
13 Bidegabekeria handia da animaliak produktu kosmetiko edo xanpuak probatzeko erabiltzea.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
14 Ez da bidezkoa txakurra beti lotuta edukitzea etxea zaintzen.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
15 Arrainkumeak bezalako animalia txiki heldu gabeak saltzen dituzten dendei zigorra ezarri behar zaie.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
16 Basabereak baserriko abereak baino garrantzitsuagoak dira.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
17 Laborategietan akuri gisa erabiltzen diren animaliek, etxabereek baino eskubide gutxiago dituzte.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Osa itzazue 4 edo 5 laguneko talde txikiak eta elkarri adierazi zer pentsatzen duzuen. Gaia talde handian ezta baidatzeko garaia iritsi da, baina, kontuan hartu, iritzirik kontrajarrienak bakarrik azalduko direla. Aurrera!

### Bibliografia

- ♦ **Ingurugiro hezkuntzarako materialak. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. Bioaniztasuna** karpeta. CEIDA-ren koordinaziopean Eusko Jaurlaritzak 1996. urtean argitaratutako unitate didaktikotik ariketa osagarrietako *Izaki bizidunen eskubideak* (1. ariketa), 160 eta 161. orrialdeetan bilduta dago.

### Sareko kontaktuak Gaztelaniaz eta ingelesez lantzeko

- Gaztelaniaz: <http://www.geocities.com/rainforest/1598/animales.htm>
- Ingelesaz: <http://league-animal-rights.org/en-duda.html>



*Ondarea gizarte osoaren ondasuna da eta, horregatik, zaindu eta babestu egin behar dugu, batez ere, gure ondasunik preziatuena, izadia, baldin bada.*

# Ondare naturala: gizartearen erantzukizuna




**DUELA GUTXI**, Europako Batzordeak Eskualde Atlantikoko euskal 80 eremu sartu ditu Natura 2000 Sarea deritzon-ean. Baina, zer da Natura 2000 Sarea? 1992an Rio de Janeiron (Brasilen) egin zen Lurrari buruzko Gailurrean hartutako erabaki batzuen zehaztapena da Sarea, eta interes komunitariokotzat hartzen diren habitat eta flora zein fauna espezie guztiak babestea du lehentasunezko helburu. Sareak bi babes-figura darabiltza bereziki: Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (HBBE) eta Garrantzi Komunitarioko Lekuak (GKL). Batzuk eta besteak Bereziki Zaintzeko Lekutzat (BZL) hartuko dira, Europako Batzordeak aztertu eta gero.

**80 BZL horiek Europako zerrendan sartuta, hauxe da Euskal Herriko eremu babestua:**


Lurraldea	azalera (Ha)
Araba	70.006
Bizkaia	17.171
Gipuzkoa	42.201
Nafarroa	88.786
Lapurdi	37.703
Nafarroa Behera	52.800
Zuberoa	28.600
<b>GUZTIRA</b>	<b>337.268,30</b>

**GKL-ren kokapena lurraldearen arabera**

Araban	19
Bizkaian	11
Gipuzkoan	18
Nafarroan	13
Lapurdin	9
Nafarroa Beherean	6
Zuberoan	4



Garrantzi Komunitarioko EAEko Lekuen mapa.



Hegaztientzako Babes Bereziko EAEko Eremuen mapa.

GKLak Natura Sarean sartzeak leku horiek babesteko konpromisoa dakar Europako instituzioen aldetik, leku berezitzat hartzeko arrazoi izan diren balioak galdu ez daitezzen. Zehazki, Europako Zuzentzaletako batek dioenez, *Garrantzi Komunitarioko Lekuaren osotasun ekologikoari lekuan bertan nahiz beraren inguruan egiten den ezein jarduerak ez diola inola ere erasango bermatu behar da*. Europako Batzordeak zazpi adierazle ekologiko ezarri zituen GKLak zein izan behar ziren zehaztasunez erabakitzeko. Horrez gain, Bruselan, Garrantzi Komunitarioko Leku bakoitzeko kartografia xehatua egin zen. Dena den, instituzioek gure planetako altxorak babesteko ahalegin handiak egiten badituzte ere, ez dugu ahaztu behar guztion ardurara dela geure ingurua ondo zaintzea eta bertako bizi-aniztasuna, guk ez ezik, gure atzetik etorriko diren belaunaldiak ere gozatu ahal izateko babestea.

Aipatutako datuak baloratu ondoren, honako ariketa hauek proposatu ditzakegu:

- Identifikatu zuen lurraldeko GKLak. Talde txikitan antolatuta, egin GKL banari buruzko azterlana: kokalekua, ingurumen-balioak, kontserbazioa eragozten duten arriskuak... Azterlanekin, erakusketa antolatu dezakezue.
- Nahikoa da eremu babestutzat deklaratzeko, natura-guneen lorrindura saihesteko?
- Beste ezer egin beharko genuke gure lurraldeko bizi-aniztasuna babesteko?

## Natura 2000 Sareari buruzko informazio gehiago

<http://europa.eu.int/comm/environment/nature/home.htm>  
<http://www.ecologistsenaccion.org/accion/espacios/natura1.pdf>  
[http://www.euskadi.net/biodiversidad/dot\\_principal\\_c.htm](http://www.euskadi.net/biodiversidad/dot_principal_c.htm)

## Bibliografia

**Naturagune paregabeak Euskal Autonomia Erkidegoan. Natura 2000 Sarea.** Consultora de Recursos Naturales (Koord.) Biodibertsitatearen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz, 2003.







*Ikastetxe batzuk monumentu historikoak dira. Horrelako eraikinen barruan egotea atsegina da, baina, batzuetan, ezinezkoa izaten da bertan azpiegitura hobek ezartzeko berrikuntza-lanak egitea. Hala ere, hezkuntza-sisteman, eraikina ez da monumentu historikotzat har daitekeen osagai bakarra: materialak, liburuak eta iraganaldiko ikasbide asko ere har daitezke zaindu eta gogoratu beharrekoak.*



23

ONDAREA. Bitakora kaiera

ITITZA

## Eskola, gizateriaren ondare

**EUSKO IKASKUNTZAK** denbora luze darama Euskal Eskola Museoa eraizten. Eusko Jaurlaritzak finantzatutako museo horren helburu nagusia gure herriko hezkuntzari buruzko memoria historikoa berreskuratzea, zaintzea eta ezagutaraztea da. Proiektua egiteko, Europako eskola-museoak bisitatu dituzte: tradizio luze-ko museoak dira, hezkuntzak gizartearen duen garrantzia azpimarratzen dutenak.

Iazko udan Donostiako Miramar jauregian ezarri zen erakusketa aipatutako lan horren emaitza izan zen; bertan, euskal geografia osoan zehar bildu diren eskola-materialak egon ziren ikusgai. Eusko Ikaskuntzaren ekimen garrantzitsu horren berri emateaz gain, iraganaldiko irakaskuntza nolakoa zen jakiten lagundu ahal diguten aztarnak oroimen histori-




korako berreskuratzeko eskaria ere helarazi nahi dizuegu: liburuak, eskolako uniformeak, argazkiak, jostailuak, kromoen bildumak, tortolosak, munduko bolak, fisikari buruzko horma-irudiak, mapak... edozein ekarpeni harrera hona egingo zaio.

Azoketan eta enkanteetan, nahiko erraza izaten da eskolako entziklopediaren aleak edo beste liburu batzuk aurkitzea eta duela ez urte asko irakaskuntza nolakoa zen gogoratzea. Irakasleen arteko elkarriketak ere are interesgarriagoak izaten dira zenbat eta solaskideak zaharragoak izan.

Baina gure ikasgelan ere azaldu ditzakegu duela belaunaldi batzuk indarrean zeuden ohituren eta gaur egungo trataeraren arteko ezberdintasunak. Horretarako, aitona-amonak informazio-iturri hobezina izan daitezke.

### Eskola munduan

UNESCOren definizioaren arabera, eskolaldiak irauteko itxaropena 4 urteko ume batek etorkizunean egitea espero dezakeen eskola-urteen kopuru osoa da. Hitzarmen estatistiko horrek 9,3 urteko kopuru onargarria islatzen du. Baina horrek ez du esan nahi planetako ume guztiek, batez beste, 9,3 eskola-urte egiten dituztenik. Datu hori oso urrun dago errealitatetik. Afrikan, esaterako, Hegoafrikar Errepublikako edo Tuniseko umeek, batez beste, 13 eskola-urte egitea espero dezakete. Burkina Fason, Djibutin edo Nigerren, ordea, hiruzpalau urteko eskolaldia baino ezin izango dute egin. Asian, berriz, 12tik gora eskola-urte egiteko itxaropena izan dezaketen lau herrialdetik Myanmar eta Pakistanen bezala 7 urte baino gutxiagoko eskolatzeko-itxaropena duten herrialdeetarako jauzi itzela ikus daiteke.



### Eskolaldiak irauteko batez besteko itxaropena, urtetan

	Lehen-Bigarren	% biztanleria
Afrika	7,6	89,4
Ipar Amerika	11,2	95,4
Hego Amerika	12,1	100,0
Asia	8,9	99,2
Europa	12,4	99,4
Ozeania	12,4	95,0
Mundua	9,3	93,6

**Iturria:**  
**Compendio mundial de la educación 2004.**  
UNESCOko  
Estatistika Institutua.  
Montreal, 2004.

Referentzi hauek kontuan harturik zera planteatu dezakegu:  
Zein da eskolan dugun ondarea? Analizatu beharreko galdekizunak.

- Hezkuntza sistema: hezkuntza-eskubidea bermatzen duen ala ez.
- Eraikina. Bere balio arkitektonikoa, historikoa, funtzionaltasuna...
- Ikasteko erabiltzen ditugun material eta baliabideak.
- Gure ikastetxearen historia. Ikasleko ohia eta bere ondorengo bilakaera.
- Egunez egun historia egiten ari gara... biltzen dugu?

Egindako hausnarketa, gure ikastetxearen museo txiki batetan gauzatu daiteke. Bertan argazkiak, liburuak, objektuak... gorde daitezke.





# bizkor ibili gero!

## Ondare erabilgarria

24  
IHITZA

ONDAREA. Bitakora kaiera


**ETORKIZUN HURBILEAN**, gure hiriburuetako leku-urritasunak bateragarri egin beharko ditu automobilaren erabilpena eta gure inguruaren gozamenak, eta hori ezinezkoa denean, neurri zorrotzagoak hartu behar izango dira. Batzuk oinezkoentzako guneen eta bidegorrien aurka daude, Donostian bidegorriak ezartzeko aukerari buruzko eztabaidek agerian utzi dutenez. Hortaz, proposa dezagun benetako irtenbide bat: Kontxako hondartzan bertan aparkatu ahal izatea. Nola? Harea gogaikarriaren eta alokatzeko eguzki-oihal polemikoen ordez, parking erraldoi bat ipiniz; horrela, bainujantzia aldean daramagula irten ahal izango gara autotik, eta jarraian uretara joan, itsasoa kotxetik metro gutxi batzuetara geratuko da eta. Erraza, azkarra eta oso-oso praktikoa.

Proiektuak ez dio Udalari dirutza handirik gastatu beharrik eragingo, hondartza asfaltatzeko brea Prestigetik Donostiako hondartzetara heldu zen txapapotetik atera daitekeelako. Aparkaleku bakoitzari Errealaren ikurra daraman goardasol txuri-urdina esleituko zaio, autoa fresko-fresko egon dadin. Horrela, bolanteak ez digu erredurarik egingo eta autoko aginte-mahaia ez da beroaren eraginez desegingo. TAO sistema erabiltzen den beste edonon bezala, bi alde egongo dira: bata egoiliarrentzat, hau da, uda osoa hondar-

tzan eguzkitan ematen dutenentzat, eta bestea noizean behin hurbiltzen direnentzat. Noizbehinkako bisitariak lau orduz eduki ahal izango dute gehienez autoa aparkaturik. Udalak negutegi-efektuaren kontrako argizari berezia saltzeko makinak ipiniko ditu erabiltzaileen eskura, karrozeriak gehiegi ez hondatzeko. Kontxara doazen pertsonentzako eguzki-krema ere makina berberak salduko dute.

Etzaulkien ordez, automobiletako eserleku etzangarriak erabiliko dira. Horrela bakoitzak bere gustuko tapizatua edukiko du, lehoinabarraren larruzko zorro bikaina nahiz zurezko bolatxoak dituen estalki erlaxagarria izan. Eta hori guztia autotik irten gabe. Norbait itotzen hasiz gero, erabiltzaileek leihatilak ireki ahal izango dituzte, edo aire girotua martxan jarri, brisarik ezak eragindako sapa saihesteko.

Kontxa asfaltatzeak derrigorrezko doikuntza batzuk ekarriko dizkie hondartzako betiko jolasei. Esaterako: paletan edo baloian aritzeko zelaietako marrak margoitu egingo dira, ez baita oso zentzuzkoa izango oina asfaltotik herrestatuz markatu nahi izatea. Pilotak eta baloiek primeran egingo dute punpa, zorua hain leuna izanik, eta hori, zalantzarik gabe, oso onuragarria izango da jokalarientzat. Beraz, dena izango da abantaila erabiltzaileentzat.





## Pensar y vivir como un bosque



**Giovanni Netto**

Director de Educación Ambiental  
del Parque Nacional de los  
Abruzzos (Italia).

*"Arad el terreno de los sentimientos,  
sembrad las semillas de los conceptos,  
haced crecer los brotes de la comprensión y  
recoged los frutos de los comportamientos"*

**SOY HIJO** de agricultores y me gustan las cosas que se hacen con las manos en las que se mantiene el estrecho vínculo con todo lo vivo, y que nos da vida; aprecio y respeto la sencillez y la gran inteligencia práctica de los ancianos campesinos; creo en los ritos de la vida ligada a la recolección. Así es como veo la Educación Ambiental (EA). Como práctica cuidada, continua y atenta, de campesino; cíclica y ritual, como las estaciones y los procesos ecológicos; bella como sólo la Naturaleza sabe ser.

Aquello que la EA debe hacer es enriquecer a las personas, niños y adultos, y sus sentimientos, sensaciones, emociones y contactos físicos con la Naturaleza. Debe *arar* el terreno del cuerpo y del alma, hacer probar el frescor del agua que fluye limpia en un arroyo, la emoción de un atardecer, el maravilloso perfume del bosque tras la lluvia. Sobre la fuerza de estas experiencias y sentimientos, la EA debe *sembrar los conceptos* de la vida; dar a conocer cómo funciona la vida sobre el planeta, tanto en el parque natural visitado, en la propia casa, como en el jardín de la escuela.

Hace falta enseñar cómo llega la energía del sol hasta nuestros platos, cómo se mueve el agua en nuestro planeta atravesando las montañas, los bosques, el cielo y hasta cómo nos recorre cuando la bebemos. Las personas deben saber de dónde toman la vida los materiales para construir los cuerpos y dónde van a acabar estos materiales (desde la peladura de fruta, a los contenedores de la comida, hasta nosotros mismos): ¡Todos somos reciclados y reciclables!. La EA debe desarrollar lazos de pertenencia afectiva y racional, ayudarnos a pensar y a vivir, no como seres separados los unos de los otros y del mundo (egoísmo de consumidores) sino como hijos del planeta, unidos unos a otros por los procesos de la vida, por el respirar, el beber, el nacer y el crecer, reproducirse y morir volviendo a la Tierra en el gran ciclo de la vida (altruismo de ecólogos biocentristas). Pensar en forma de relaciones quiere decir ser consciente de la calidad de nuestras relaciones con *nuestros vecinos* (aire, agua, hombre, animales y plantas...), ser consciente de las consecuencias de nuestros comportamientos.

A través de este proceso, atento y concreto, se llega, como educadores, a recoger el fruto de los comporta-

mientos positivos de la gente hacia el patrimonio ambiental (¡y los frutos llevan dentro las nuevas semillas!). Sólo así la EA es verdadera y conduce a resultados duraderos. La EA antes de abordar los grandes problemas globales y de desarrollo sostenible, debe asegurarse de que el mayor número posible de personas sobre el planeta sean conscientes de su rol personal a la hora de generar problemas ambientales y tener instrumentos para contribuir a resolver estos problemas. A partir de la experiencia personal, de los afectos y de los conocimientos, hace falta ayudar a las personas a trabajar sobre sí mismos y después junto a los otros: la familia, los vecinos, el barrio, la ciudad, la nación, Europa, la Madre Tierra. Es difícil y complejo, también porque debemos ser nosotros, los educadores ambientales, los primeros en trabajar conjuntamente y en contacto con la Naturaleza y los lugares verdes de las ciudades; en construir recorridos continuos, sean físicos o didácticos de experiencias, reflexiones y acciones de calidad. Estos recorridos deben partir de la Naturaleza y llegar a las ciudades, a las escuelas.


Se pueden hacer y existen muchos ejemplos positivos. Por ejemplo, el Parque Nacional de los Abruzzos, Lazio y Molise, con esta visión, ha fundado una escuela de formación para trabajadores de EA, intérpretes ambientales, profesores, trabajadores de centros, etc., donde se comparten pasiones, sueños, metodologías, experiencias y proyectos y se crece profesionalmente. También desde hace catorce años funciona en el Parque un Centro de Voluntariado para todas las edades, adonde llegan personas de todo el mundo y comparten entusiasmo, experiencias y colaboran a favor de la conservación de la Naturaleza. El servicio de educación del Parque realiza programas educativos con alumnos de las escuelas de grandes ciudades como Nápoles o Roma, colabora con la gente del lugar, con asociaciones y centros educativos y universidades de toda Europa. Esto y mucho más es lo que podemos hacer para construir un gran sistema de *acción local y pensamiento global*, para trabajar con profesionalidad, con eficacia de sinergias y colaboraciones, con afecto y entusiasmo por la vida de este maravilloso planeta. Para aprender, con la simplicidad y la fuerza de nuestros antepasados, a vivir y pensar como un bosque.

## SARETIK BUELTAKA



Historia saguak gidaturik  
[www.fsancho-sabio.es](http://www.fsancho-sabio.es)

Antso Jakituna fundazioaren web guneak digitalizatutako antzinako 2.700 liburu jarri dizkizue eskura, liburu horietarako sarbidea eta bere dokumentu-fondoen ezagutza ahalbidetzeko. Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak finantzatutako ekimen horri esker, etxetik bertatik irakurri ahal izango ditugu hain interes handiko dokumentu historikoak.



Industriaren iraganaldia arakatzeko  
[www.vc.ehu.es/gorfigliano/ARCHIVOS/enlacesAP.htm](http://www.vc.ehu.es/gorfigliano/ARCHIVOS/enlacesAP.htm)  
EHUko arkeologia irakasle Juan Antonio Quirósek prestatutako web gune interesgarriak mundu osoko museoekiko estekak dakartzan gune hau hartzen du barne.



Gizateriaren ondarea  
[www.patrimonio-mundial.com/home.html](http://www.patrimonio-mundial.com/home.html)  
Partikular batek prestatutako web gune honetan, UNESCOk Espainian kultura-ondarearen altxor izendatutakoak daude jasota, batez ere. Ondo azaldu eta diseinaturiko gunea da, eta UNESCOrekiko lotura ere eskaintzen du.

## Euskal Herriko altxor izkutuak

Ondareaz aritzen garenean gehienetan gauza materialetan pentsatzen dugu. Baina ondarea bestelako hainbat arlotan ere present dago. Besteak beste gure kulturaren bi bitxietan barneraturik dago ondarea, bertsolaritzan eta euskal dantzetan, alegia. Bertsoekin, batik bat ahozko tradizio gorde eta biziberrituko dugu eta euskal dantzekin musika eta herriko kulturaren espresatzeko modua zainduko dugu. Batan zein bestean moldatzeko, material guztia gudan dago, alegia gure gorputzean.



### Bertso eskolak pil-pilean

Bertso eskolak dira bertsolaritzan murgiltzeko modurik errazena eta didaktikoa, inolako zalantza izpirik gabe. Trantsizio garaian euskararen egoerarekin lotuta, hau suspertzeko.

80. hamarkadan indarberrituriko mugimendua izan zen eta Xabier Amurizaren txapeldunaren ekarpenari jarraitzen zion. Amurizak *Zu ere bertsolari* liburua plazaratu zuen eta bertan bertsoak egiteko teknikak azaltzen zituen. Bertsolaritzan jarduteko bertsolari jaio behar zelaren ideia hankaz gora jartzen

Bertso eskolan egindako lana ona baldin bada, pixkanaka gure jakituriaren berri eman ahal izango dugu plazaz-plaza.  
JAVI GARCÍA



Euskal dantza taldeetan aritzea aisialdirako aukerak.

zuen liburu horrek. Horrek jende asko bultzatu zuen bertsoen mundura. Horrela bertso eskolek bere lekua hartu zuten eta denborarekin Euskal Herriko txoko gehienetara heldu dira.

Bertsoetan trebatzeko aukera paregabea ematen dute bertso eskolek eta baita euskal kulturara hurbiltzeko. Bertsozale elkarteak 17 urte daramatza bertsoen kultura hedatzen eta horretarako oso tresna interesgarria da bertso eskolena. Hizkuntzarekin jolastea da bertso eskolen hasierako xedea eta hortik aurrera norberak jarri behar ditu mugak eta baita helburuak ere.

Aurreneko ariketak paperaren gainean gauzatzen dira bertsolaritzako unibertsoa arrotzegi sentitu ez dezagun. Ikasten dugun heinean bertso idatziak alboratuko ditugu eta inprobisazioari egingo diogu lekua.

Eskoriatzako Ahalmen bertso eskola izan zen lehenena eta gero Santutxu, Hernani, Muxika, Zumaia eta Euskal Herriko beste herri eta txokoetara hedatu dira arrakasta handiarekin. Ehun bat bertso eskola daude zazpi herrialdeetan sakabaturik. 9 urtetik 60 urte bitarteko ikasleak biltzen dira,



## Mugarik gabeko lankidetz

# Koopera: ausart zaitez laguntzen



ra bikaina da, proba ezazue.

eta orotara 1.000 bat lagun-  
nek hartzen dute parte.  
Bertso eskolak hirietan indar  
asko dute eta emankorrenak  
gune urbanoetan daude.  
Hortaz, bertsoak nola egiten  
diren eta hauek kantatzeko  
interesa baldin baduzue  
[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com) web  
gunean klikatu. Bertan ber-  
tso eskolen mapa izango  
duzue eta harremanetan  
jartzeko aukera.

**Oinez egindako bertsoak**  
Dantzek ere berebiziko ga-  
rrantzia dute kultur eta on-  
darearen gordailu eta igor-  
penaren elementu bezala.  
Kultura ezagutzeko eta gor-  
putza erritmoz astintzeko  
parada duzue euskal dantze-  
kin, aukera paregabea gaz-  
teen aisialdirako. Aurrerakia,  
ezpata-dantza, makil-dan-  
tza, zortzikoa... Frogatzeko  
gogorik? Oinak martxan  
jartzea ez da zaila izango.  
Dantza taldeak nonnahi aur-  
kituko dituzue Euskal He-  
rrian. Neska zein mutilentzat  
eskaintza zabala dago eta  
soilik interesa azaldu behar  
da. [www.dantzan.com](http://www.dantzan.com) web  
orrialdeak informazio ugari  
ematen du euskal dantzetan  
hasteko. Lurralde ezberdine-  
tan dauden dantza taldeekin  
kontaktuan jartzeko estekak  
daude.

Boluntarioen lana oso ar-  
datz garrantzitsua da UNES-  
CO Etxean. Erakunde ho-  
rrek garatutako KOOPERA  
programaren helburua na-  
zioarteko lankidetzaren ere-  
muan lan egin nahi dutenei  
aholku ematea da. UNESCO  
Etxeak, KOOPERA zentroa-  
rekin batera, Nazioarteko  
Lankidetzari buruzko presta-  
kuntza-linea bat eskaintzen  
du. Linea horretako ikasta-  
roak eta tailerrak Nazio Ba-  
tuetako Sistemari eta Nazio-  
arteko Lankidetzan espezia-  
lizaturik eta jendearentzat  
irekirik dagoen KOOPERA  
informazio zentroan ema-  
ten dira.

Zentroaren xedea na-  
zioarteko lankidetzaren gai-  
neko informazioa eta pres-  
takuntza ematea, elkargu-  
nea izatea eta bestelako  
gizarte-jarduerak garatzea



Bilboko Rodríguez Arias kaleko 41. zenbakian KOOPERA zentrua aurkitu dezakezue. Bertan kooperazioari buruzko informazioa eskuragarri dago.

da. Horrez gain, euskal  
gizartearen elkartasuna sus-  
tatzea eta lankidetzaren parte  
hartu dezan ere lortu nahi  
du. KOOPERAREN presta-  
kuntza-eskaintza giza esku-  
bideei, gizarte-garapenari,  
bake-kulturari eta beste

hainbat gairi buruzko eza-  
gutzak eta prestakuntza  
zabaldutako nahi dituztenei zu-  
zentzen zaie. Ikastaroak goi-  
zez eta arratsaldean ematen  
dira. Argibide gehiago lor-  
tzeko, begiratu [www.unesco-  
coeh.org](http://www.unesco-coeh.org) web gunean.

## bideoklubean

Erabakiak jada gizakiak hartzen ez  
dituenerako

### I robot

(Alex Proyas-ek zuzendua, 2004)

Isaac Asimoven liburu ezaguna oinarritzat  
hartuta, zinemak askotan  
tratatu duen balizko egoe-  
ra bat proposatzen du fil-  
mak, adimen artifizial  
batek gizakiak kontrolatzea  
erabakitzeak aukera, ale-  
gia. Borroka baten eta  
hurrengoaren artean  
sumatzen den etorkizune-  
ko gizarteak, teknologiarekiko gero eta  
menpekoagoa, ez da agintearen meka-  
nismoak eskuratzeko gai, eta nahaspilak  
egoeraren eragileak eurak ere irensten  
ditu. Ingurumenari buruzko xehetasun  
bitxi bat aipatzearen, oso urrunekotzat  
aurkeztzen ez den etorkizun horretan,  
Michigan aintzira zabortezi zibernetiko  
gisa erabiltzen den eremu idor-idorra da.



## Puntu berdea

Izar Mendiguren laudiotarra  
da eta batxilergoko lehene-  
go maila ikasten du. Laudio-  
ko bertso eskolako ikaslea.  
Etorkizuneko txapelduna?

*Bertsoak ez du adinik  
berdin zahar, berdin gazteak,  
kultura bat bermatuaz  
igaro ditu mendeak.  
Hainbeste une goxo ta  
beste hainbeste tristeak,  
Zenbat burukomin ditu  
behin hasten dena uzteak?  
Buru baten buruzagi  
errimak, neurri luzeak...  
malkoak dauden tokian  
ezarritz irribarreak,  
baina mina ematen dit  
onartu ta esateak;  
kantari ibiltzean soilik  
garela guztiz askeak.*

Doinua: La Habanera.



## Olaberriko Herri Eskola aurrera

**OLABERRIKO HERRI ESKOLAKO** gurasoek gure herriari minbizi bat antzeman diogu, eta guri dagokigun neurrian, gure ondare hau berpiztu nahi eta beharraren konpromesua hartu dugu. Irakurle batek baino gehiagok galdetuko du zein ondarez ari ote garen: baselizaren bat ote, gazteluren bat akaso... Ez da ez horrelako ezer, galtzeko zorian dagoena, gure Herriko Eskola da eta horrekin batera herriak duen erakunde garrantzitsuenetako bat. Horrek, etorkizunari begira, herriaren bizia eta nortasuna galtzea ekarriko ligukeela uste dugu. Zorionez, ordea, Herri Eskolako Gurasook arazo honetaz jabetzeaz gure herriari esperantza, lan egiteko gogoia eta herrian bizitzeko grina eman nahi dizkiogu. Horrela, gure helburua, Herriko Eskola bizirik mantenduz, herriari bizia ematea da.

Olaberria Gipuzkoako Goierri eskualdean dagoen herri txiki eta menditsua da. Bertan hainbat eraikin garrantzitsu ditugu, besteak beste: San Joan Bataiatzailearen baseliza, Udaltxea, Frontoia eta nola ez gure Herri Eskola. Herri txikia izan arren, eskualdeko industrialde handiena dugu bertan. Herri gunetik 3 kilometro ingurura Lazkaoko udalerria dugu eta 4 bat kilometrorra Beasain. Gertutasun horrek bultzatu du zenbait Olaberriarrak euren haurrak herri hauetan eskolatzea. Gertaera horrek ohartarazi gaitu Olaberriko herriak lo egiteko leku huts bihurtzeko duen arrisku handiaz.

Herri bateko ondarerik handiena bertako biztanleek herriari berari eman ohi dien bizian datza. Horrela, eguneroko bizimoduaren, bertako jakinduriaren, hezkuntzaren eta elkarbizitzaren baloreak oinarritzat hartuz, ondare hori lortzeko, herrian bertan eskola izateak eragin zuzena du. Gure haurrek gure giroan, gure hizkuntzan haziz eta heziz, bertako herritarrek izateaz harro sentitzea lortu nahi dugu. Herriaren berpiztea helburutzat hartuz, zenbait ekimen ari gara antolat-



*Olaberriko zenbait famili bere seme alabekin egindako irteera batetan ikusten ditugu.*



*Gazta fabrika bat gertutik ezagutu zuten.*

zen bi arlotan banatuta. Bata, zenbait zerbitzu martxan jartzeko beharra adierazi eta, ahal den neurrian, bultzatzeko hartu beharreko neurriak proposatu ditugu. Honela, 0-2 urte bitarteko haurrentzat haurtzaindegi bat eraikitzeko beharra eta eskolan orduz kanpoko zaintzen beharra Udalari adierazi diogu. Aldi berean, eskolako arduradunen, gaur egungo Herri Eskolako gurasoen eta etorkizuneko gurasoen inplikazioa bultzatu nahi da. Arlo honetan, aurreapauso nabarmenak egin ditugu. Esate baterako, guraso berrien beharrak jakin eta aztertzeko, inkesta bat luzatu genien 0-2 urte bitarteko hau-

rren guraso guztiei. Azterketa honen ondorioz, Udalari hainbat proposamen egin dizkiogu. Gaur egun, haurtzaindegi bat irekitzeko urrats handiak eman dira eta epe laburrean haurtzaindegi berria izango dugu.

Gurasook lantzen dugun beste arloa gure herria ezagutzeko eta aldi berean Olaberriarrak elkar ezagutzeko egin ohi ditugun ekintzak dira. Horretarako, haurren herriarekiko lotura eta nortasuna bultzatuko duten eskolaz kanpoko ekintzak antolatzen ditugu.

Aurrera begira zenbait irteera antolatu baditugu ere, Eguberrietako oporretarako aukera paregabea sortu zitzaigun herriaren aurrean agertu eta gure berri eman eta zabaltzeko. Herri gunean bi taberna-jatetxe daude, baina biek oporrak hartzen dituzte Eguberrietan. Horrek herritarroei elkartzeko guneak zeharo murrizten dizkiugu. Bada, ordea, herri-gunean bertan elkarre bat eta horretaz baliatuz, elkarreko taberna orduetegi zehatz batekin irekitzea proposatu genuen gurasook, beti ere elkarrearen oniritziarekin. Horrek guztioi onura ekarriko digula ikusirik, herritar guztiei elkartzeko gune ireki bat eskaini eta, aldi berean, gure errealitatea denei adierazteko balioko digu.

OLABERRIKO HERRI ESKOLAKO GURASOAK



## Izarretako ibilbidea Euskaditik

*Done Jakue edo Santiago Bidea, kristaua kulturak erromesaldietarako duen bide garrantzitsuenetakoa da, Erroma eta Jerusalemekin batera.*



**GIZATERIAREN ONDARE IZEN-DATUTAKO** bide hori ez da erlijiozko adierazpena bakarrik, baizik eta hispaniar-musulman munduak eta kristautasuna eta feudalismoa harremanetan jarri zituen nazioarteko merkataritza-bidea ere izan zen.

Hasiera hasieratik, erromesek, eraso egiten zieten lapur eta tropa musulmanak saihesteko, hainbat ibilbide erabili zituzten.

Euskadi, ibilbide horietako bik zeharkatzen dute: Kostaldeko Bidea edo Ipar Bidea eta Barrualdeko Euskal Bidea. Biak oso interesgarriak. Bi bide horien arteko eta beste bide batzuekiko, Frantziar Bidea esaterako, lotura asko eta asko dira, eta erromesek mende askotan zehar noranzko guztietan ibili duten bide-sare etengabea osatzen dute. Bidean ibiltze hutsa, omenaldi bihurtzen da, Alfontso II.a *El Casto* erregearen agindupean lehenengo eliza altxatzearekin hasi zen historiari. Erromesaldien goreneko uneak XI. eta XII. mendeak izan ziren; 1.122. urtean, Konpostelar Urte Santua edo Jubileu-Urtea ezarri zen. Bidean zehar eraikitako ospitaleak eta merkantzi-trafikoaren gaineko zerga-salbuespena funtsezko arrazoiak izan ziren eragin kultural itzeleko bide horren garapenerako. Hortaz, denbora izanez gero motxila hartu eta bideari ekin. Bi aukera dituzue.

### Kostaldeko Bidea edo Ipar Bidea

Bide zaharrena da, Apostoluaren hilobia aurkitu zen garaikoa, hain zuzen ere.

Etapak	Ez galtzeko
<b>Baiona-Irun</b> 30 Km	<b>Txingudi</b> Padura, itsasadarra, estuarioa. Balio natural handia.
<b>Irun-Donostia</b> 25 Km	
<b>Donostia-Zumaia</b> 32 Km	<b>Zumaia</b> Intereseko ondare geologikoa: Facies Fysch.
<b>Zumaia-Markina</b> 35 Km	
<b>Markina-Gernika</b> 26 Km	<b>Zenarruza</b> Ondare historiko artistiko nabarmen-garria: kolegio-eliza erromanikoa eta erromesentzako aterpetxea.
<b>Gernika-Bilbao</b> 39 Km	
<b>Bilbao-Muskiz</b> 40 Km	<b>Gernika</b> Ondare historikoa eta inguru natural pribilegiatua.
	
	<b>Balmaseda</b> Ondare historiko eta kulturala. Erdi Aroko azoka eta gertakari historikoen antzezpena.
	

### Barrualdeko Euskal Bidea

Gaztelan, Frantziar Bidearekin lotzen da; erromes gehienek erabiltzen duten bidea da.

Etapak	Ez galtzeko
<b>Irun-Hernani</b> 22 Km	<b>Astigarraga</b> Kultura-ondarea.
<b>Hernani-Tolosa</b> 22 Km	
<b>Tolosa-Zegama</b> 31 Km	<b>Zegama</b> <i>San Adrian</i> tunela. Erromatarren galtza-da. Urbiako zelaia. Aizkorri...
<b>Zegama-Agurain</b> 21 Km	
<b>Agurain-Gasteiz</b> 27 Km	<b>Agurain</b> Ondare historiko artistiko nabarmen-garria: Santa Maria eta San Joan elizak.
<b>Gasteiz-Argantzun</b> 19 Km	
<b>Argantzun-Briñas</b> 25 Km	<b>Armentia</b> San Prudentzioren erlikiak barruan gordeta dauzkan eraikin erromaniko ederra.
	
	<b>Armiñón</b> Historian zehar hainbat liskar eragin dituen sei begiko zubi ikusgarria.
	

## Irakurmen balagarriak

**Naturguneak eta turismo aktiboa**

EKOS. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz, 2003.



Gidaliburu hau nabarmen-tzen badugu ere, beste edozein ere izan ahal zaigu baliagarri irteera bat antolatzeko. Ahaztu ohi zaizkigun baina, jarduerari ahalik eta etekinik handiena atera nahi badiogu, kontuan hartu behar diren alderdiak kontsultatzea da interesgarriena. Argitalpen horretan, Euskadi osoan egiten diren kirol- eta kultura-jarduerak zein jai-ekitaldiak aipatzen dira.

**Arkitektura eta Hiri-garapena. Bizkaia**

Zenbait egile. Electa. Bilbao, 1997.



Gida erakargarri honek arkitekturaren ikuspuntutik interes berezia duten Bizkaiko eraikin guztien berri jasotzen du, edo jasotzen saiatzen da behintzat: baserri eta elizarik zaharretatik Guggenheim museora, eta tartean, aditu ez diren berehalako mirespena sortzen ez badute ere, guztiok bizilekutzat nahiko genituzkeen etxebizitza-eraikin batzuk. Aipagarriak dira oinplano batzuen erreproduzioak, bai eta zenbait historialari eta arkitekto ospetsuk testuan agertzen dituzten iritzi interesgarriak ere.

**EKIMENAK**
**Ondareaz gozatzeko ibilbideak nonahi**

Kultura Ibilbide edo Ondare Ibilbide esaten dugun multzoan, turismo zein kultura arlotako ekimen asko sar ditzakegu. Euskal eskualde gehientsuek dituzte ildo horretako eskaintza interesgarriak, eta, epigrafe honetan, eratu berri diren ekipamendu batzuk besterik aipatu ez baditugu ere, irakurleari, ziur aski, burura etorriko zaizkion beste asko ere badaude. Hasiera batean aisialdirako taxututako bitarteko horiek baliabide didaktikotzat erabiltzea da asmoa. Askok dira gure lurralde txikiak eskaintzen dizkigun aukerak, Gipuzkoako industriar zeharreko bidea, edo parke naturaletako interpretazio zentroak, esaterako. Bermeotik Errioxaraino zihoran eta duela gutxi azterlan interesgarri baten oinarritzat erabili den ardoaren bidea bezala beste hainbat, historia, geografia eta euskara bera lantzeko euskarri bikaina izan daitezke. Informazio gehiago lor daiteke hemen: [www.euskadi.net/turismo/sit\\_e.htm](http://www.euskadi.net/turismo/sit_e.htm)

**ELKARTEA**

**AIP, ondarea interpreta-tzeko elkarteak**

AIP deritzon elkarteak, euren lanbideagatik edo hala nahi dutelako, ondarearen interpretazioaren eremuan diharduten pertsonak osatzen dute. Ondare naturalaren eta kulturalaren esanahiaren berri emateko arteari esaten diote ondarearen interpretazio, eta bisitariek hura aintzat hartu eta babesteko jarrera egokia har dezaten sustatu nahi du. Prestakuntza ematea eta leku interesgarrietan garatzeko programak planifikatu eta gauzatzea dira AIP elkartearen helburuetako batzuk, eta, horretarako, ikastaro eta mintegi irekiak antolatu eta aldizkari bat argitaratzen dute.

[www.interpretaciondel-patrimonio.com](http://www.interpretaciondel-patrimonio.com)  
© 948 150 012  
Av. de Zaragoza, 35, 1º of. i  
31005 IRUÑEA

**EKIPAMENDUAK**
**El Pobal burdinola: euskal industriaren iraganaldia berpiztu egin da Enkarterrietan**

El Pobal burdinolak aldaketa asko jasan ditu Salazarrek, XVI. mende aldera, El Vado izeneko lekuan zeukaten burdinola bertara lekualdatzea erabaki zutenetik. Garai hartan, makina bera ez ezik, defentsarako egitura ere eraiki behar zen, eta orain mintzagai dugun kasuan, egitura hori kubo itxurako dorre gotikoa izan zen. Denboraren poderioz, gotorlekua jauregi bihurtu zen, eta, beraren ondoan, nekazaritzako lanabesak gordezko baserria eraiki zuten. Aldi berean, obra hidraulikoa az gain, hainbat hobekuntza egin zituzten burdinolaren egituraren eta funtzionamenduan, minerala metal bihurtzeko zeregina utzi eta metalak eraldatzeko lantegi edo suteki mekanizatu bihurtu zen arte. Azkenik, 1965ean, burdinolak bertan behera utzi zuen jardueran, mailu-hotsa hirurehun urte baino gehiagoz entzun ondoren. Gaur egun daukaguna esparruak bere garairik onenetan zituen konplexu-

tasun eta garrantziaren isla xumea besterik ez da. Burdinolaren inguruneari buruzko ikuspegi zabala izateko, arkeologia-lan mardula egin da hamarkada luze batez, panelek eta argazkiek ondo erakusten dutenez.

Bertan dauden lanabes eta makina gehienak XIX. mendekoak dira, eta berriztatuta eta erabiltzeko egokira ezin hobean daude; izan ere, gaur egun, maisu industrialek erakustaldiak egiten dituzte, larunbat goizetan. Hori dela eta, antolaturiko taldetan joatea gomendatzen da. Bisitariek gaur egun arte iraun duen baserriatik abiatuta zaharberritu den Dorretxea, errota, ukui-luak, ogia egiteko bi labe, burdinola eta bere bulego administratiboa, ikaztegia eta biltegiak, azpiegitura hidraulikoa, presa eta 300 m-ko ubidea, bi gorpildun anteparak eta eskualde osoan zehar jasotako lanabesen bilduma zabal-zabala ikusteko aukera izango dute.

© 629 271 516

El Pobal



## Guía de Santillana del Mar, de niños para niños

MAZARRASA, Karen (Koord.)


Gida honetan, 7 eta 14 urte bitarteko ume talde batek Kantabriako herri eder horretako leku eta monumentu aipagarri buruzko bere pertzepzioa eta esperientzia azaltzen dizkigu. Euren ikuspuntuan oinarriturik kontatzen digute Santillanako historia, bertako kaleetatik eraman eta eraikinak erakusten dizkigutelarik.



## Ondare kulturala

Garapen jasagarriari buruzko Urdaibaiko IX. jardunaldiak.

Zenbait egile. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. UNESCO Etxea. Vitoria-Gasteiz, 2004.



Jardunaldiotan Kultura Ondareari buruz eta ondare horren eta izadiaren arteko harremanari buruz azaldu ziren txostenen bilduma da. Ondarearen kudeaketari, babesari, berriztapenari eta erabilera sozialari buruzko testu interesgarriak.

## BALIABIDEAK INTERNETEN



[www.uned.es/catedraunesco-educam](http://www.uned.es/catedraunesco-educam)

Ingurumen-hezkuntzari buruzko UNESCO katedraren web guneak Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalak (UHUN) arlo horretan eskaintzen duen prestakuntza osoa aurkeztzen digu, deialdi, lan-poltsa, albiste interesgarri, hezkuntzako esperientzia, bibliografia eta abarren berri emateaz gain.



[www.liceus.com/cgi-bin/ac/09/patrimonio.asp](http://www.liceus.com/cgi-bin/ac/09/patrimonio.asp)

Liceus urrutiko akademia legez diharduen hezkuntza-ataria da. Ondarea baliabide didaktikotzat erabiltzeko ikastaro interesgarria eskaintzen du, bereziki irakasleei zuzendurikoa.



[http://www.euskadi.net/r46-516/eu/contenidos/informacion/museos/eu\\_1400/indice\\_e.html](http://www.euskadi.net/r46-516/eu/contenidos/informacion/museos/eu_1400/indice_e.html)

Esteka hori [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) helbidean dago, kultura sailaren gunearen barruan, eta EAeko museo-ekaintza osoaren berri ematen dizue: ordutegiak, postako helbideak... eta bisitaldiak bulegotik mugitu gabe prestatzeko behar duzen guztia. Gainera, Kultura Ondareari buruzko web gunearen barruan, kultura-ibilbideen zerrenda daukazu.



burdionolarren ikuspegia. Lanabesak ezinbestekoak ziren burdinari forma emateko.

SANTI YANIZ

## BIDEOA

### Lurraren arnasa bilduma

Natura- eta kultura-ondareak osatzen dituzten alderdi guztiei buruzko bideo didaktikoen bilduma oso-oso da. Bai lehen hezkuntzan bai bigarren lantzeko egoki den bideo sorta honetan, gure baso edo ibaiei buruzko kapituluak zein eraikin adierazgarrien analisia ikusi ahal izango ditugu. Hona hemen kapituluetako batzuk: *Harrien historia zaharra; Baso zaharren baita; Bardeak; Lurraren azal zimurtsua; Kaleharrizko paisaiak; Valderejo...* 21 izenburu interesgarri osatu arte.



## ALDIZKARIA

### Elhuyar: Zientzia eta teknika

<http://www.zientzia.net/elhuyar.asp> (Bilatu ondare naturala)  
Nº 192. 2003eko azaroa

Baten bat oraindik galdu samar badabil, Elhuyarren aldizkariaren zenbaki honek Toki Agenda 21 deritzonari buruzko dossier bat dakar, eta, besteak beste, gure lurraldean, dagoeneko, gehien parte-hartzea biltzen duen ekimen horrekin bat egin duten udalerriek hartu-

tako konpromisoaren nondik norakoa azaltzen du. Zenbait mankomunitate eta udalerriren toki-planak eta aldizkariaren zenbaki hori argitaratu arte toki-zein mankomunitate-mailan gauzatutako jarduerak aipatzen ditu, hala nola UDAL-SAREA 21 deritzon ekimena.

Horrez gain, Sabin Intxaurragarekiko elkarrizketa eta Toki Agenda 21ek EBren eremuan etorkizunean izango dituen ondorioen gaineko artikulua ere badakartzu.



## Lur eta ingurumen zientziak DBH eta Batxilergoko unitate didaktikoak

### Ciencias de la tierra y el entorno Unidades didácticas para ESO y Bachillerato

Batzilergoko Lur Zientziak irakasgaiaren eduki guztiak lantzeko hamabost unitate didaktiko. CDa "word" formatu irekian argitaratu da, beraren edukia aldatu ahal izateko, eta arlo horretan hainbat urtetako esperientzia duen irakasle talde zabal batek prestatu du.

Quince unidades didácticas que cubren todos los contenidos de la asignatura de Ciencias de la tierra de Bachillerato. Este CD se ha editado en formato "word" abierto, para permitir alterar el contenido del mismo y ha sido elaborado por un amplio equipo de docentes con años de experiencia en la materia.

## Iraunkortasuna aintzat hartzen duten jaiak Las fiestas más sostenibles

Festa baten arrastoak zabor tonetan neurtzen dira. Dibertitzeko garaian ekologikoak izan behar dugu, horrela iraunkortasunean aurrera egiteko. Gida honekin gure festak ez dio ingurugiroari kalterik egingo. Modu honetan prestaturiko festak balio positiboa izango du, dibertigarria, ezberdina eta iraunkorra.

Las huellas de una fiesta se suelen medir en toneladas de basura. Para avanzar en la sostenibilidad hay que ser ecológicos/as también a la hora de disfrutar. Esta guía indica cómo hacer para que la fiesta que organicemos tenga un valor medioambiental añadido que la haga diferente, sostenible e igualmente divertida.



**IHITZAren ale guztiak sarean: [www.euskadi.net/ihitza](http://www.euskadi.net/ihitza)** Todos los números de IHITZA en la web

Gai hauek prestatzen gabilta:

17 zk.: Klima.

18 zk.: Kostaldea.

19 zk.: Biodibertsitatea.

Zuen ekarpen eta iradokizunen zain gaude.

Números en preparación:

Nº 17: El clima.

Nº 18: La costa.

Nº 19: La biodiversidad.

Esperamos vuestras aportaciones y sugerencias.

## CEIDA ingurumen heziketa zure eskura

### BILBAO

Ondarroa, 2  
(Txurdinaga)  
48004 Bilbao  
• 944 11 49 99  
• [ceida-bilbao@ej-gv.es](mailto:ceida-bilbao@ej-gv.es)

### URDAIBAI

Allende Salazar z/g  
(Udetxea Jauregia)  
48300 Gernika-Lumo  
• 946 25 71 25  
• [urdaibai@ej-gv.es](mailto:urdaibai@ej-gv.es)

### DONOSTIA

Basotxiki, 5  
20015 Donostia  
• 943 32 18 59  
• [ceida-donosti@ej-gv.es](mailto:ceida-donosti@ej-gv.es)

### LEGAZPI

Brinkola, z/g  
20220 Legazpi  
• 943 73 16 97  
• [ceida-legazpi@ej-gv.es](mailto:ceida-legazpi@ej-gv.es)

### VITORIA-GASTEIZ

Baiona, 56-58  
01010 Vitoria-Gasteiz  
• 945 17 90 30  
• [ceida-vitoria@ej-gv.es](mailto:ceida-vitoria@ej-gv.es)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU  
ETA INGURUMEN SAILA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN  
DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN